

EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN PROGRAMA 2020



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN PROGRAMA 2020



EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak
sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a 2016eko iraila

Ale-kopurua: 500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua: La Trastienda Creativa

Inprimaketa: Grafilur

LG:

Edukia

Aurkezpena	6
0 Laburpen exekutiboa	7
1 Sarrera	11
2 Testuingurua eta abiapuntua	13
3 2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa	17
3.1 Helmugak	17
3.2 Irismena	17
3.3 Helburuak	18
3.3.1 Prozesu-helburuak: instituzionalizazio-maila	18
3.3.2 Eraitza-helburuak: ingurumen-irizpideak zenbateraino txertatzen diren	18
3.4 Kudeaketa-eredua	19
3.4.1 Gobernantza	19
3.4.2 Programa eta hango parte-hartzaileen koordinazioa	21
3.4.3 Lerro estrategiko eta jardueren hedapena	21
3.4.4 Eraitzen neurketa eta Programaren segimendua	22
3.4.5 Komunikazio-planaren gauzatzea	23
3.5 Lerro estrategikoak	24
Inplementaziorako edukia eta tresnak	24
Kontratazio-prozeduretan integratzea	24
Prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa	25
Merkatuarekin koordinatzea	26
Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana	26
I. eranskina: Jarduera-fitxa indibidualak	28
II. eranskina: Inplementazio-egutegia	49
III. eranskina: Atxikipen-dokumentua	50
IV. eranskina: EKPBaren Programak egiten duen ekarpena 2020rako Ingurumen Esparru Programa	54



Eusko Jurlaritzak, Europar Batasunarekin bat, ondo baino hobeto daki zein garrantzitsua den kontratazio publikoa aldaketa-rako tresna gisa. Hori dela eta, 2004. urtetik aurrera, kontratazio publiko berdea txertatu du bere plan estrategiko eta akordio espezifikoean.

Administrazio publikoak ingurumenari lotutako balio ondo aitortuak dituzten produktuak eta zerbitzuak eskatzea tresna garrantzitsua da sektore pribatuak halakoak eskaintzea sustatzeko, eta ingurumenarekiko errespetuz jokatzeko duten merkatuak sor daitezela bultzatzen da horrela.

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programaren misioa da Euskadiko administrazio publikoei Euskadiko 2020ko Ingurumen Esparru Programan jasorik dauden ingurumenari lotutako xede garrantzitsuenetako bat lortzen laguntzea: ingurumenaren ikuspuntuari dagokionez eredugarria den administrazio bat lortzea.

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa Eusko Jurlaritzak onartzen duen mota honetako bigarrena da, eta Euskadiko administrazio

publikoak beren erosketa eta kontratazioetan ingurumenarekin lotutako irizpideak txertatzera bultzatzeko esparru ezin egiago bat ezartzen du.

Administrazio eraginkorrago eta, ingurumenari dagokionez, arduratsuago bat lortzea; baliabideen erabilera efizienteago bat egitea; merkatuarekiko koordinazioa optimizatzea; eta Euskadi Europa Hegoaldean erosketa eta kontratazio publiko berdearen erreferente bihurtzea: horiek guztiak izango dira programa berri hau ezartzearen ondorio nagusiak, eta beraz, programarekin bat egitera gonbidatu nahi ditut, lerro hauen bitartez, gure herrialdeko erakunde publiko guztiak.

Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea, lankidetzaren publiko-pribatuari eta administrazioen konpromisoari esker, Euskadiko sektore publikoan bidea irekitzen ari da, ingurumenari lotutako gero eta irizpide gehiago ezartzen baititu erosi behar dituen produktu eta zerbitzu askotan. Ahalegin horren guztiaren onurek administrazioan ez ezik gure industria-sarearen lehiakortasunean eta gizartearen ongizatean ere eragina du.

IÑIGO URKULLU RENTERÍA
Euskadiko Lehendakaria



0. Laburpen exekutiboa

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programak beharrezko jarduera-esparrua finkatzen du Euskal Administrazio osoa mobilizatzeko eta bere erosketetan eta kontratazioetan ingurumen-irizpideak kontuan izan ditzan eta barneratu ditzan lortzeko.

Programa honek indartu egiten du Eusko Jaurlaritzak kontratazio publiko berdea aldaketarako tresna gisa bultzatzearen alde egiten duen **apustua eta konpromisoa**, 2020rako Euskadiko IV. Ingurumen Esparru Programak ezartzen dituen gidalerroei eta Europako eta nazioarteko joerei jarraikiz.

Era berean, Programak jarraipena ematen dio 2005ean hasi zen **ibilbide** bati. Ibilbide horrek mugari eta lorpen handiak lortu ditu, hala nola:

- 2008an, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Erabakia , Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeari buruzkoa.
- 2011-2014rako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen lehenengo Programa.
- Euskal Administrazioentzako zenbait tresna eta baliabideen garapena.
- Toki Administrazioari, Foru-Aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari etengabe laguntzea baldintza-orrietan ingurumen-irizpideak txertatzen.
- Azken emaitza gisa, Eusko Jaurlaritzan erosketa eta kontratazio berdea gaur egun % 30ean egon dadin lortzea.

EAEn ibilitako bidean ikasitakoak eta arlo honetan aurreratuenak diren Europako eta nazioarteko administrazioen joerak hartu dira gidaritzat Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen bigarren Programa hau egitean. **Prozesu** horretan, 65 sailek, entitatek eta Euskal Administrazioiko maila guztietako erakundek hartu dute parte aktiboki, eta, prozesu horri esker, itxura eman zaio ikuspegiari, irismenean, edukietan eta kudeaketan jauzi kualitatibo bat egin duen Programa honi.

Helmugak

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programak, ikuspegi global batetik eta kontratazio-prozesuetan bizi-zikloaren ikuspegia txertatuz, **3 helmuga nagusi** ditu:



- Eraginkorragoa den eta baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzen dituen administrazio bat lortzen laguntzea, kontratazio-prozesuak hobetuz eta haietan ingurumen-irizpideak sistematikoki txertatuz.
- Merkatuarekiko koordinazioa optimizatzea, erosketa publiko berdeak ekoberrikuntza zentzu zabalean txerta dezan bermatzeko eta euskal enpresek kokapen hobea izateko, bai Euskadin, bai kanpoan.
- EAEko Administrazioaren maila guztietan konpromiso eraginkorra lortzea.

Irismena

Programa honek **jauzi kualitatibo** bat egiten du, euskal administrazio osoak bere borondatez parte har dezan sustatzen baitu:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra: Sailak eta Erakunde kidetuak.
- Foru-Aldundiak: Sailak eta foru-sektore publikoko atxikitako erakundeak.
- Tokiko erakundeak: Udalak, Mankomunitateak...

Helburuak

Atxikitako administrazio bakoitzarentzat, 2016-2020 denboraldirako **helburu zehatzak** planteatzen ditu, bi mailatan:

- Prozesuari dagokionez, helburu nagusia da ingurumenari dagokionez arduratsua den erosketa instituzionalizatzerantz aurrera egitea.
- Eta emaitzei dagokienez, Europar Batasunaren jarraibideekin bat eginez, lortu nahi da 2020rako kontratazio publikoaren % 50ean ingurumen-irizpideak txertatzea. Helburu hori lortzeko, pixkanaka egin behar da aurrera, beren garrantziaren arabera lehenetsitako 20 produktu- eta zerbitzu-multzotan.

	2016	2018	2020
PROZESU HELBURUA	Ingurumenaren aldetik arduratsua den erosketa hobeto eta errazago integratzeko kontratazio-prozesuen berrikusketa eta neurrien plangintza		Erosketa eta kontratazio publiko berde instituzionalizatua
EMAITZA HELBURUAK	Euskadiko administren ohiko kontratazio-tresnetan ingurumenaren irizpidea txertatzea	10 produktu- eta zerbitzu-multzoren lizitazioen % 50ean ingurumen-irizpideak kontuan hartzea: - papera - ordenagailuak - imprimaketa - ekipamentuak - eraikinetako garbiketa-lanak - ibilgailuak - argitalpenak - elikadura - lorezaintza - bide garbiketa - obra zibilak eta azpiegiturak	20 produktu- eta zerbitzu-multzoren lizitazioen % 50ean ingurumen-irizpideak kontuan hartzea: - aurreko 10ak - eraikuntza - urbanizazioa - hondakinen bilketa - elektrizitate hornidura - garraio publikoa - mezularitza - bulegoko altzariak - ehunak - bidaiak - ekitaldiak

Lerro estrategikoak

5 lerro estrategikotan antolatzen da, eta 20 jarduera hartzen ditu barnean:

1. Inplementaziorako edukia eta tresnak	Administrazioari behar diren oinarrizko baliabideak ematea da helburua, modu seguruan txerta ditzan ingurumen-irizpideak bere kontratazio-prozesuetan. Barnean hartzen du, halaber, esparru berrietan, hala nola erosketa zirkular eta ekoberritzailean, esperientzia pilotuak garatzea.
2. Kontratazio-prozeduretan integratzea	Dauden kontratazio-prozedurak eta -tresnak aztertuz, mekanismoak identifikatu eta ezarri nahi dira, kontratazioan ingurumen-irizpideak modu eraginkorrean eta normalizatuan txerta daitezzen.
3. Prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa	Euskal Administrazioiko arduradunak maila guztietan gaitzea da helburua, batetik, onurei buruz, eta, bestetik, ingurumenari dagokionez arduratsua den kontratazioa egiteko.
4. Merkatuarekin koordinatzea	Euskadiko sektore pribatua mobilizatzea eta erosketa eta kontratazio publikoaren prozesuan aktiboki inplikatzeko da helburua. Hala, euskal enpresak goiz integratu litezke irizpide teknikoen garapenean, eta aukera handiagoak izango lituzkete Euskadiko eta kanpoko administrazioen lizitazioak lortzeko.
5. Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana	Sinergiak ahalik eta gehien baliatzea da asmoa, eta euskal administrazioak erreferentzia gisa ikusiak izatea bai hemen, bai kanpoan.


Emaitzen neurketa

Programa honek **emaitzen neurketarako eta segimendurako sistema** bat du, ezarritako helburuak zenbateraino bete diren eta jarduerak zenbateraino gauzatu diren jakiteko.

Kudeaketa-eredua

Azkenik, Programak **kudeaketa- eta gobernantza-eredu** bat proposatzen du, honako hauek osatzen duten zeharkako eta partaidetzazko sistema batean oinarritua:

- Trakzio-talde bat, programa zuzentzeko eta koordinatzeko.
- Laguntzazko idazkaritza tekniko bat.
- Inplikaturik dauden Euskal Administrazioen parte-hartze aktiboa.



Laburbilduz, Programa hau asmo handikoa eta errealista da aldi berean, eta haren zeregina da itxura ematea eta Euskal Administrazioak 2016-2020 denboraldian lortu behar dituen ingurumen-helmuga garrantzitsuenetako batzuk betetzea.



1. Sarrera

Zer da Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea?

Europako Batzordeak honela definitzen du Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea:

“...prozesu honen bidez, agintari publikoek eskuratzen dituzten produktuek, zerbitzuek eta obrek inpaktu txikia dute ingurumenean beren bizi-zikloan zehar, haien ordezkuratu liratekeen eta lehen mailako funtzio bera duten beste produktu, zerbitzu eta obra batzuekin alderatuta”.

Public procurement for a better environment,
COM (2008) 400

Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen ondorioz aplikatu behar diren irizpideek xede izan behar dute hautatutako irtenbideek ingurumen inpaktu txikia izan dezaten, produktu, zerbitzu edo obra orok bete behar duen ingurumen-araudian ezarritako betebeharrak betetzeaz gain; eta, erosketa edo kontratazio orotan bezala, ziurtatu behar du eraginkortasunez erabiltzen direla funts publikoak.

Programan zehar, bi modutara egingo zaio aipamen Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeari: batzuetan, termino hori bera erabiliz; beste batzuetan, Erosketa Publiko Berdea erabiliz, laburragoa delako eta erabileraren aldetik askoz ere zabalduagoa dagoelako. Bi kasuetan, Europako Batzordeak berak Erosketa eta Kontratazio Publiko Berde gisa definitzen duen kontzeptuari egiten zaio erreferentzia.

Nola ulertzen da egungo testuinguruan?

Europako sektore publikoak 2 bilioi euro gastatzen ditu, gutxi gorabehera; hots, Europar Batasuneko BPGd-aren¹ % 19. Erosketa eta kontratazio publiko berde eta berritzailearen irizpideak aplikatuz, administrazio publikoek modu estrategikoan erabil dezakete beren erosahalmena.

Europar Batasunak paper hori aitortu du, eta arlo horretako konpromisoak hartu ditu bere ingurumen-estrategia eta garapen jasangarriko estrategia ugaritan, erosketa eta kontratazio publikoa funtsezko tresna bihurtuz Europako ekonomia lehiakorragoa eta ingurumenari dagokionez arduratsua izan dadin. Estrategia berriena Europa 2020 Estrategia da.

¹ Europako Batzordea (datarik gabe). What is GPP? http://ec.europa.eu/environment/gpp/what_en.htm



Baliabideak erabiltzean produktiboak izatearen, ekonomia zirkularraren eta bizi-zikloaren ikuspegiaren printzipioak aplikatuz, kontratazio publikoari esker eraginkortasun handiagoa lortzen da ingurumen-mailan eta baliabide publikoak erabiltzean. Horren ondorioz, administrazio publikoaren eredugarritasunaren bidez, trakzio-efektu bat ere lortzen da sektore pribatuan eta gizartean.

Kontsumoaren eta ekoizpen jasangarriaren politiketako ikuspegi berri horiek eta kontratazio publikoari buruzko Europako Zuzentarauen erreformak estrategia politikoaren funtsezko tresna bihurtu dute kontratazio publikoa.

Beste zer onura dakartza?

Kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak aplikatzeak, ingurumen-onurak ez ezik, onura ekonomikoak eta sozialak ere ekartzen dizkie administrazioari, sektore pribatuari eta gizarteari.



Ihobe (2014).
Ingurumenarekiko Erosketa Publiko
Arduratsuaren Onurak.

Administrazioarentzako onurak:

- Gardentasuna eta eraginkortasuna handitzen ditu.
- Aukera ematen du ezarritako ingurumen-helmugak betetzeko eta ingurumen-inpaktuak murrizteko.
- Dirua aurrezteko sustatzen du, kontuan hartzen baititu bizi-zikloaren kostuak.
- Lan-ingurune osasungarria izaten laguntzen du.
- Irudi publikoa hobetzen du, eta eredugarria da kontsumitzaile pribatuentzat.

Sektore pribatuarentzako onurak:

- Pizgarriak ematen dizkio industriari berritzeko eta lehiakorragoa izateko.
- Produktuen eta zerbitzuen berrikuntza bultzatzen du.
- Tokiko ekonomia indartzen du.
- Produktuentzako eta zerbitzuentzako ingurumen-estandarrak ezartzen laguntzen du.

Gizartearentzako onurak:

- Ingurumen-produktuen eta -teknologiaren prezioa murrizten du.
- Herritarren bizi-kalitatea hobetzen du, murriztu egiten baitira ingurumen-inpaktuak.
- Lotura bat ezartzen du ekintzaitzaren eta enpleguaren artean.
- Ingurumen-gaiei buruzko kontzientziazioa handitzen du.





2. Testuingurua eta abiapuntua

Europako politikekin bat etortzea

Azken urteotan, Erosketa eta Kontratazio Publikoaren paperak eboluzionatu egin du, eta, gaur egun, funtsezko tresnatzat jotzen da ingurumen-, gizarte- eta berrikuntza-politikak bultzatzeko.

Europa 2020 Estrategiak (Europar Batasunaren hazkunde adimendunago, jasangarriago eta integratzaileago baterako estrategia) zazpi “ekimen enblematiko” ditu lehentasunezko arloetan: berrikuntza, politika industrial eta baliabideen erabilera eraginkorra, besteak beste. “Baliabideak eraginkortasunez erabiltzen dituen Europa” ekimen enblematikoak proposamen eta neurri batzuk txertatzen ditu, hala nola kontratazio publikoa erabiltzea, xede hauetarako:

- Hazkunde ekonomikoa baliabide materialak erabiltzetik banantzea, ekoizpen- eta kontsumo-politiken bidez.
- Ekonomia zirkular bat sustatzea —ekoizpen- eta kontsumo-sistema horretan, hondakinak baliabide bihurtzen dira—, hondakinak prebenitzeko eta materialak berreskuratzeko eta berrerabiltzeko politiken bidez.
- Karbono gutxiko ekonomia baterantz aurrera egitea, politika energetikoen bidez.

Helmuga horiek erosketa publikora eramaten dira kontratazio-ikuspegi berriak txertatuz, hala nola «erosketa zirkularra», non kontratazio-prozesuak birdiseinatu egiten baitira materialen zikloa ixteko (adibidez, uniforme ordeztuetatik datozen zuntz birziklatuen ehuneko bat duen laneko arropa erostea); edo produktuak erostetik zerbitzuak kontratatzer pasatzea, baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzeko (adibidez, moketak alokatzea, erosi beharrean).

Kontratazio Publikorako Zuzentarauen² erreformak indartu egiten du kontratazio publikoak estrategia politikorako tresna gisa duen papera. Zuzentarau berriek sustatzen dute enpresa txiki eta ertainek erosketa publikoa egitea, eta ingurumen-, gizarteratze- eta berrikuntza-politikak inplementatzea errazten dute. Erreformak honako hauetarako aukera ematen du, beste berritasun batzuen artean:

² EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2014/24/UE ZUZENTARAUUA, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa, eta 2004/18/CE Zuzentaraua indargabetzen duena
EUROPAKO PARLAMENTUKO ETA KONTSEILUKO 2014/25/UE ZUZENTARAUUA, 2014ko otsailaren 26koa, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan diharduten erakundeetako kontratazioari buruzkoa, eta 2004/17/CE Zuzentaraua indargabetzen duena



- bizi-ziklo osoaren kostuak kontuan hartzeko, bai barneko kostuak (erabiltzen ez diren produktuak erabiltzeko, mantentzeko eta kudeatzeko kostuak), bai sortutako ingurumen-inpaktuei lotutako kanpoko kostuak (adibidez, berotegi-efektuko gasen emisioei lotutako kostuak sartzean);
- produktuak eta zerbitzuak ekoizteko prozesuari lotutako irizpideak txertatzeko, nahiz eta haien substantzia materialaren zati ez izan;
- eta ondasunen, obren edo zerbitzuen ingurumen-ezaugarriak, ezaugarri sozialak eta bestelako ezaugarriak egiaztatzen dituzten berariazko etiketak eskatzeko.

Nazioarteko joerak

Ingurumenari dagokionez eta/edo sozialki arduratsua den erosketa eta kontratazio publikoan ibilbide luzeena duten herrialdeek gero eta gehiago txertatzen dituzte alderdi horiek beren **kontratazio publikoaren estrategia globaletan**, ingurumena, berrikuntza eta beste politika publiko batzuk uztartuz. Hona hemen kostua/eraginkortasuna ratio handiena lorrarazten duten elementu aipagarrienetako batzuk:

- Helburu politiko argiak zehaztea, haiekin alderatuta ebaluatzeko aurrerapena (bai-instituzionalizazio-mailan, bai erosketetan eta kontratazioetan ingurumen-irizpideak txertatze-mailan).
- Premiak aztertzea eta zehaztea, baita merkatuarekin goiz kontsultatzea ere.
- Ingurumen-irizpideak sinplifikatzea, eta ingurumen-irizpide garrantzitsuenak erabiltzea lehenestea.
- Gehiago erabiltzea irizpide funtzionalak deskripzio-irizpideak baino.
- Kontratazio zentralizatua sustatzea esparru-akordioen, erosketa-zentralen eta baterako erosketen bidez.
- Lehendik dauden kontrataziorako barne-prozesuetan eta -tresnetan txertatzea, hala nola kontratazio elektronikorako sistemak, ereduzko baldintza-orriak edo produktu-katalogoak, inplementazioa susta dadin eta ondorengo monitoretza erraztu dadin.

2020rako Euskadiko Ingurumen Esparru Programarekin bat etortzea

2020rako Euskadiko Ingurumen Esparru Programak (IEP 2020) ingurumen-politikaren jauzi kualitatibo bat planteatzen du: ingurumena oparotasun ekonomiko eta sozialari lotzea, baliabideak eraginkortasunez kontsumitzeko printzipioak txertatzen dituen eta karbono gutxi duen ekonomia lehiakor, berde eta berritzaile bat garatuz.

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa hau IEP 2020ren helburu estrategiko hauei lotuta dago bereziki:

- 2. helburua: Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurrera egitea.
- 4. helburua: Lurraldearen jasangarritasuna handitzea.
- 5. helburua: Politiken koherentzia bermatzea ingurumen-integrazioa areagotuz.

Sei helburu estrategikoez gain, IEP 2020k sei Proiektu Giltzarri zehazten ditu ingurumen-politika aldatzeko motor gisa. Proiektu Giltzarri horiek etorkizuneko erronkei ekiten diete Eusko Jaurlaritzaren baterako eta lankidetzazko ikuspegitik, eta sail ezberdinen kolidergoa behar dute. Proiektu Giltzarrietako bat "Administrazio eredugarria ingurumenaren aldetik" da, eta horren emaitzetako bat da 2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020ko Programa onartzea eta Europar Batasunak erosketa berdearen inguruan gomendatu dituen helburuak betetzea.

Euskadin ibilitako bidea

Eusko Jaurlaritzak ere aitortzen du kontratazioak aldaketarako tresna gisa duen garrantzia, eta, 2004az geroztik, kontratazio publiko berdea zenbait plan estrategikotan eta berariazko akordiotan txertatuta dago, hala nola 2007-2010 aldirako IEPn; 2008an Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Erabakian, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeari buruzkoan; eta 2012-2016rako Gobernu Programan.

Era berean, 2005az geroztik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak, Ihobe sozietate publikoaren bitartez, tresnak eta laguntza ematen dizkie euskal administrazioei kontratazioan ingurumen-irizpideak txertatzeko, konpromiso politikoak bete daitezten.

2011n, 2011-2014rako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 1. Programa onartu zen. Programa horrek bidea irekitzen eta erosketa eta kontratazio publiko berdea hizkuntza eta diskurtso politikoan ager dadin lagundu du. Helburu argiak ezarri ditu ingurumen-irizpideak zenbateraino txertatu nahi diren. Halaber, erreferentziako irizpideak ezarri lortu den aurrerapen teknikoa azpimarratu du (Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburua). Zenbakitan, Eusko Jaurlaritzaren erosketa eta kontratazio berdearen maila orokorra % 30 da une honetan, eta ez da gutxi, kontuan izanik kontratazio guztietan ezin direla ingurumen-irizpideak txertatu eta testuinguru ekonomiko zailean gaudela.

Baldintza-orrietan ingurumen-irizpideak txertatzea eta prestakuntza dira premia nagusienak erakundeetan erosketa berdea hedatzeko. Urte hauetan guztietan, Euskal Administrazioiko maila guztietako 80 erakunde publikok baino gehiagok eskatu dute laguntza beren kontratazio-prozesuetan ingurumen-klausulak txertatzeko. Horrek erakusten du gai horrekiko interesa eta jarrera ona dutela ez bakarrik Eusko Jaurlaritzak, baita gainerako administrazioek ere, hala nola Foru-Aldundiek eta Tokiko Erakundeek. Hala ere, nahiz eta aurrerapausoak egin diren, eragileak mobilizatzen jarraitu behar da ingurumenari dagokionez arduratsua den erosketa guztiz instituzionalizatuta egon dadin Euskal Administrazioan.

Programa hau egiteko maila guztietako euskal administrazioekin (Eusko Jaurlaritza, Fo-

ru-Aldundiak eta tokiko administrazioa; guztira, 65 erakunde) egin diren **gogoeta- eta alderaketa-bileretan**, kezka eta proposamen hauek jaso dira 2. Programa egiteko:

- 2. Programa Euskal Administrazio Publiko osora hedatzea, eragile guztiak mobilizatu dituen eta erosketa publiko berdea sendotuko duen herrialde-programa bat izan dadin.
- Prozesu-helburuak zein emaitza-helburuak ezartzea.
- Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburua erreferentzia teknikotzat hartzea, eta hura sinplifikatzea ahaleginak mugatzeko eta merkatuari mezu argi bat bidaltzeko.
- Trukerako, elkarlanerako eta jardunbide egokiak aitortzeko guneak aurreikustea.
- Prestakuntzako, aholkua emateko eta merkatuarekin koordinatzeko ekintzak ziurtatzea.
- Esparru berritzaileetan (erosketa zirkularra, bizi-zikloaren kostuak aplikatzea edo ekoberrikuntzaren erosketa) eraginkortasun handiko ekintza biderkatzaileak eta ekintza pilotuak txertatzea.
- Lehendik dauden plataformetan eta tresnetan txertatuta, segimendua egiteko sistema optimizatzea, eraginkorragoa izan dadin.

Programa honek ikuspegi globala aplikatzen du, eta bizi-zikloaren pentsamendua txertatzen du kontratazio-prozesuetan. Horren helburua da ingurumena gehiago errespetatzen duten irtenbideak aurkitzea, gastu publikoaren eraginkortasun ekonomikoa eta ekoberrikuntzaren bidez baliabide naturalak eraginkortasunez erabiltzea susta ditzaten. Hala, eta kontuan izanik 1. Programatik ikasitako ikasbideak eta gogoeta- eta alderaketa-bileretako gomendioak, European eta nazioartean gai honi buruz dauden joeren bilakaerarekin eta 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburuekin bat etortzea lortzen da.





3.

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa

3.1 Helmugak

Hauek dira Programa honen helmuga nagusiak:

- Eraginkorragoa den eta baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzen dituen administrazio bat lortzen laguntzea, kontratazio-prozesuak hobetuz eta haietan ingurumen-irizpideak sistematikoki txertatuz.
- Merkatuarekiko koordinazioa optimizatzea, erosketa publiko berdeak ekoberrikuntza zentzu zabalean txerta dezan bermatzeko eta euskal enpresek kokapen hobea izateko, bai Euskadin, bai kanpoan.
- EAEko Administrazioaren maila guztietan konpromiso eraginkorra lortzea.

3.2 Irismena

Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 1. Programa Eusko Jaurlaritzako sailei eta haren erakunde kideetuei zuzenduta zegoen, nahiz eta gainerako euskal administrazioei ere parte hartzeko gonbita egin.

2. Programa hau, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko osoari zuzentzen zaio, bereizketarik gabe, xede hauekin: merkatuari eta gizarteari mezu bateratu bat bidaltzea; administrazio osoaren jarrera eredugarria bistaratzea, baita beste herrialde-plan eta -programetan ere; eta sektore pribatuak eta herritarrek jasangarritasun-irizpideekin erosi eta kontrata dezaten sustatzea.

Hala, Programa honi atxikitzen zaizkion euskal administrazio publiko guztietara iristen da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Sailak eta atxikitako erakundeak).
- Foru-Aldundiak (Sailak eta foru-sektore publikoko atxikitako erakundeak).
- Tokiko erakundeak (Udalak, Mankomunitateak...).
- Beste erakunde publiko batzuk.



3.3 Helburuak

Programak bi motatako helburuak ezartzen dizkio erosketa eta kontratazio publiko berdeari atxikitako eta harekin konprometitutako administrazio parte-hartzaile bakoitzari:

- Prozesu-helburuak; hau da, erosketa eta kontratazio publiko berdea instituzionalizatzea erakundearen barne-kudeaketan.
- Emaizta-helburuak; hau da, erakunde bakoitzaren kontratazioetan ingurumen-irizpideak benetan txertatzea.

3.3.1 Prozesu-helburuak: instituzionalizazio-maila

Helburu nagusia da administrazio parte-hartzaileetan **erosketa publiko berdea instituzionalizatzea**.

Instituzionalizazio hau edo erakundeetan erosketak ingurumen-irizpideekin egiten direla honela neurtu behar da:

- Administrazioan erosketa eta kontratazio publiko berdea zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratuko den arduradun bat esleituz (lidergoa).
- Programan lehenetsitako esparruetan urteko lan-plan bat zehaztuz eta, gutxienez, administrazio bakoitzarentzat bereziki interesgarria den beste esparru batean (plangintza).
- Kontratazio publiko berdea aztertuz eta hura administrazioan dauden prozeduretan eta tresnetan txertatuz (integrazioa).
- Kontratazioan parte hartzen duten (hasi zerbitzu teknikoetatik eta kontu-hartzailetzaraino) eta arlo honetan trebatuta dauden langileen kopurua (trebakuntza).
- Kontratazioan ingurumen-irizpideak zenbateraino dauden txertatuta monitorizatzearen bidez emaitzak aurkeztuz (neurketa).

3.3.2 Emaizta-helburuak: ingurumen-irizpideak zenbateraino txertatzen diren

Helburua da **2020. Urterako kontratazio publikoaren % 50ean ingurumen-irizpideak txertatzea**. Helburu hori ezarri da Europar Batasunean.

Helburu hori kalkulatu behar da Programan lehenetsitako produktu- eta zerbitzu-multzoetarako lizitazioei dagokienez, eta bolumen ekonomikoa eta lizitazio-kopurua neurtu behar dira. Programa honek barne hartzen dituen produktu- eta zerbitzu-taldeak hautatzeko, Europako Batzorderen jarraibideak, Euskadin ezarritako ingurumen-politiken lehenetsitasun nagusiak eta administrazioaren maila guztietan interes berezikoak diren kategori guztiak hartu dira kontuan.

Administrazio parte-hartzaile guztiek gutxienez kontratazioen % 50ean txertatu behar dituzte ingurumen-irizpideak 2018rako lehenetsitako 10 produktu-multzoak kontratatzean, eta, beste horrenbeste 2020. urterako, lehenetsitako 20 multzoak kontratatzean.


Horrez gain, administrazio bakoitzak helburuak ezarri behar dizkio bere buruari gutxienez beste produktu- eta zerbitzu-multzo baterako. Multzo horrek Programak lehenetsi ez duen bat izan behar du, baina interes berezikoa eta/edo espezifikokoa erakunde horrentzat. % 50eko helburua lortu behar den gutxienekoa da; hortaz, administrazioek ezar ditzakete hori baino helburu handiagoak, lidergoa erakusteko Programan eskatzen den helburuaz harago.

	2016	2018	2020
PROZESU HELBURUAK	Ingurumenaren aldetik arduratsua den erosketa hobeto eta errazago integratzeko kontratazio-prozesuen berrikusketa eta neurrien plangintza		Erosketa eta kontratazio publiko berde instituzionalizatua
EMAITZA HELBURUAK	Euskadiko administren ohiko kontratazio-tresnetan ingurumenaren irizpidea txertatzea	10 produktu- eta zerbitzu-multzoren lizitazioen % 50ean ingurumen-irizpideak kontuan hartzea: <ul style="list-style-type: none"> - papera - ordenagailuak - imprimaketa - ekipamentuak - eraikinetako garbiketa-lanak - ibilgailuak - argitalpenak - elikadura - lorezaintza - bide garbiketa - obra zibilak eta azpiegiturak 	20 produktu- eta zerbitzu-multzoren lizitazioen % 50ean ingurumen-irizpideak kontuan hartzea: <ul style="list-style-type: none"> - aurreko 10ak - eraikuntza - urbanizazioa - hondakinen bilketa - elektrizitate hornidura - garraio publikoa - mezularitza - bulegoko altzariak - ehunak - bidaiak - ekitaldiak

3.4 Kudeaketa-eredua

3.4.1 Gobernantza

Programaren kudeaketa- eta gobernantza-eredua Programan sartzen diren administrazio nagusiei parte harrarazten dien zeharkako eta partaidetzazko sistema baten bidez finkatzen da. Hau da programa honek sustatu nahi duen kudeaketa-egitura:



EROSKETA PUBLIKO BERDERAKO SAILARTEKO TALDEA (TRAKZIO-TALDEA)

Sailarteko talde edo trakzio-talde honen sorrera bultzatuko da. Talde horretako kideek lider eta eredu izan beharko dute EAEko gainerako administrazioaren aurrean. Sailarteko taldeak, erosketarako daukan ahalmena eta arlo horretan duen lidergoa kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako honako sail hauen ordezkariak izan ahalko ditu kide, hasiera batean: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Ogasun eta Finantza Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Segurtasun Saila, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Osasun Saila. Horiez gain, honako erakunde hauetako ordezkariak ere izan ahalko dira bertako kide: Osakidetza, VISESA, EITB eta Eusko Trenbideak.

Honako hauek izango dira taldearen egiteko nagusiak:

1. Programaren hedapena gidatzea eta koordinatzea, urteko ekintza-planen bitartez.
2. Erosketa publiko berdearen alorreko konpromisoa modu sendoan betetzea, gainerako euskal administrazioaren aurrean eredu izateko.
3. Hobetzeko neurriak definitzea, urteko emaitzen eta jasotako eskaeren arabera, identifikatutako erronkei erantzuna emateko eta programarekin hartutako konpromisoak beteko direla bermatzeko.

Sailarteko talde edota trakzio-talde hau euskal administrazioaren gainerako mailekin hedatzen joango da (foru-aldundiekin eta toki-erakundeekin, alegia), programarekin bat egiten doazen heinean.

IDAZKARITZA TEKNIKOA

Zeregin hori Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak hartzen du bere gain, Ihobe Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoaren bitartez.

Programako ekintzak dinamizatzear eta maila praktikoan hedatzeaz arduratzen da, bai eta Trakzio-Taldearen eta administrazio parte-hartzaileen arteko koordinaziotik datozen administrazio- eta kudeaketa-lanak egiteaz ere.

ADMINISTRAZIO PARTE-HARTZAILEAK

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programarekiko konpromezua duten Euskadiko administrazioak dira.

Parte hartzeko, atxikipen-dokumentu bat sinatu behar dute (III. Eranskina), eta, horren bidez, konpromisoa hartzen dute:

1. Programan lehenetsitako esparruetan urteko lan-plan bat finkatzeko eta, gutxienez, erakundearentzat bereziki interesgarria den beste esparru batean.
2. Kontratazio publiko berdea aztertzeko eta hura administrazioan dauden prozeduretan eta tresnetan txertatzeko.

3. Parte hartzen duten langileak trebatzeko eta gaitzeko, eta jardunbide egokiak eta esperientziak beste administrazio batzuekin partekatzeko.
4. Urteko segimendua egiteko, eta egindako lanaren emaitzak Idazkaritza Teknikoari helarazteko.

Programa honetan parte hartzen duten administrazioek jarraian adierazten diren lanak egingo direla bermatu behar izango dute:

- Programa eta hango parte-hartzaileak **koordinatzea**.
- **Lerro estrategikoak** eta haietan sartutako jarduerak hedatzea.
- Emaitzak neurtzea eta Programaren **segimendua** egitea.
- Programaren **komunikazio**-plana gauzatzea.


3.4.2 Programa eta hango parte-hartzaileen koordinazioa

Programako jardueren arteko eta administrazio parte-hartzaile guztien arteko koordinazioa ziurtatu behar da koordinazio- eta/edo truke-bileren bidez ziurtatuko da.

Trakzio-Taldea: urtean behin bilduko du, Programako koordinazio-funtzioak eraginkortasunez betetzeko.

Idazkaritza Teknikoa: Programako eragile parte-hartzaile guztien, Trakzio-Taldearen eta atxikitako administrazioen edo administrazio parte-hartzaileen arteko koordinazioak arduratuko da.

Administrazio Parte-hartzaileak: administrazio parte-hartzaileen koordinazioa truke-taldearen bidez egingo da. Truke-taldeen bidez bildu behar dute. Taldeen gaikakoak edo erakunde-motakakoak izan behar dute, atxikitako administrazio bakoitzeko langile teknikoekin ekiteko Programaren helburuei. Asmoa da ahalik eta gehien baliatzea eragile parte-hartzaile guztien arteko sinergiak, eta administrazio langile gehiago sartzea tartean, erakundeetan parte-hartze eta dinamismo handiagoa sortzeko.



3.4.3 Lerro estrategiko eta jardueren hedapena

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa bost lerro estrategikoren inguruan antolatzen da. Bost lerrook aukera ematen dute Programa hedatzeko, eta Programan ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzen dute. Hauek dira bost lerroak:


- Inplementaziorako edukia eta tresnak.
- Kontratazio-prozeduretan integratzea.
- Prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa.
- Merkatuarekin koordinatzea.
- Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana.

Lerro estrategiko bakoitza jarduera jakin batzuek osatzen dute. Jarduera horiek 3.5 puntuan daude labur deskribatuta, eta I. eranskinean jasotzen diren fitxa indibidualetan daude zehatz-mehatz deskribatuta.

3.4.4 Emaitzen neurketa eta Programaren segimendua

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa urtero ebaluatu behar da, eta ebaluazioak bi elementu izan behar ditu:

- Zenbateraino bete diren Programak administrazio parte-hartzaileei ezarri dizkien helburuak.
- Zenbateraino bete diren Programan bertan jasotako jarduerak.



Programaren helburuen betetze mailaren neurketa

Programaren erosketa publiko berdearen prozesu- eta emaitza-helburuen betetze mailaren segimendua, neurtu behar den ekitaldiaren hurrengo urtearen hasieran egin behar da segimendua, 2016. ekitalditik aurrera.

Idazkaritza Teknikoak egin behar du segimendua, eta emaitzak erantsi behar ditu Eusko Jaurlaritzarentzat (sail guztiak eta sektore publikoko erakunde batzuk). Gainerako administrazio parte-hartzaileek beren erakundeetan egin behar dute segimendua, eta emaitzak Idazkaritza Teknikoari helarazi behar dizkiote, formatu estandarizatu bati jarraikiz.

Idazkaritza Teknikoak urteko txostenean jaso behar ditu emaitza erantsiak, Programako helburuak betetzean zenbat egin den aurrera, eta, metodologiak uzten badu, lortutako ingurumen-onuren kalkulua. Uneko urteko lehenengo hiruhilekoan argitaratu behar da txostena.

Emaitzen arabera, Idazkaritza Teknikoak eta Trakzio-Taldeak berriazko laguntza-jarduerak proposatu behar dituzte, uneko urterako inplementazio-planaren zati gisa.

2016ean, neurketa-metodologia sendo baina erraza eta ahalik eta arinena ezartzeko, Idazkaritza Teknikoak honako hauek berrikusi behar ditu: Europako Batzordeak eta nazioarteko komunitateak gai honi buruz eman dituzten gomendioak – Nazio Batuen Erosketa Publiko Jasangariaren Hamar Urterako Esparru Programa; Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 1. Programako segimendu-txostenetako gomendioak; eta Eusko Jaurlaritzan lehendik dauden tresnak. Azterketa horretatik abiatuta, 2016tik aurrera inplementatu beharko den metodologia estandarizatu bat proposatu behar da, Programaren helburuen betetze mailaren segimendua egiteko.

Azterketa horretan, erosketa eta kontratazio publiko berdearen onurak kalkulatzeko metodologia ere berrikusi behar da.

Programaren jardueren betetze mailaren segimendua

Programaren helburuen betetze maila kuantitatiboki neurtzeaz gain, lerro estrategiko ezberdinetan jasotako jarduera guztien gauzatze mailaren segimendua ere egin behar da. Segimendu hori Idazkaritza Teknikoak egin behar du urte fiskal bakoitzaren amaieran.

Emaitzak eta gauzatze-maila txosten batean jaso behar dira, eta, lortutako emaitzetan oinarrituta, Trakzio-Taldeak, Idazkaritza Teknikoak proposatuta, uneko urterako ekintza-plana idatzi behar du.

3.4.5 Komunikazio-planaren gauzatzea

Administrazio parte-hartzaileen arteko koordinazioa indartzeko, Programarekiko interesari eusteko eta erakunde eta eragile gehiagotara iristea lortzeko, Programa komunikatzeko neurriak hartu behar dira. Neurri horiek ziurtatu behar dute, batetik, informazioa erakunde parte-hartzaile guztietara iristea, eta, bestetik, haiek guztiak bi norabidetan eta aktiboki komunikatzea Programan.

Programaren komunikazioa: administrazio guztiek Programa hau ezagutzen dutela ziurtatzeko, eta informazioa galdu ez dadin, Idazkaritza Teknikoak honako hauetaz arduratu behar du:

- Hedapen-plan bat egitea, administrazio guztiek hasieratik izan dezaten 2020rako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren berri eta hari atxikitzeko aukeraren berri.
- Administrazioei urtero gogorarazi behar zaie, Programa existitzen dela ez ezik, Programa inplementatzeko laguntza-zerbitzuak eta baliabideak eskura daudela.

Administrazio parte-hartzaileen arteko komunikazioa: Idazkaritza Teknikoak behar diren bideak jarri behar ditu atxikitako administrazio guztiek Programa hedatzeari buruzko informazioa bidali eta jaso dezaten.

3.5 Lerro estrategikoak

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearearen Euskadiko Ingurumenarekiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Arduratsuaren Programa bost lerro estrategiko hauetan antolatzen da:

LERRO ESTRATEGIKOA: Inplementaziorako edukia eta tresnak

Lerro honen bitartez, Euskal Administrazio Publikoari behar diren oinarrizko baliabideak eman nahi zaizkio, bere kontratazio-prozesuetan ingurumen-irizpideak modu seguruan txerta ditzan.

Erosketetan eta kontratazioetan ingurumen-irizpideak txertatzeko irizpide errazak edukiz gero eta laguntza-zerbitzua edukiz gero, ingurumen-irizpideak modu seguruan eta pixkanaka txertatzen dira kontratazioan. Horretan oinarrituta eraiki eta heda daiteke haien inplementazioa.

Gainera, esparru berritzaileetan (hala nola erosketa zirkularra, ekoberritzailea, karbono gutxikoa...) esperientzia pilotuak eginez, behar den ezagutza pilatzen da Europa 2020 Estrategian ezarritako helburuetarantz aurrera egiteko.

Hauek dira lerro honetako jarduerak:

1. Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburua eguneratzea eta osatzea, dauden irizpideak sinplifikatuz eta eragin edo interes berezia duten beste multzo batzuetarako produktu edo zerbitzuen irizpideak eginez.
2. Programan lehenesten diren produktu/zerbitzuetarako ereduak proposamenak egitea.
3. Esparru berritzaileetan (erosketa zirkularra, ekoberritzailea, baldintza funtzionalen araberakoa, karbono gutxikoa, bizi-zikloaren kostuak kontuan hartzen dituen...) ekintza pilotuak egitea, arlo horretan aurrera egiteko 2020ari begira.
4. Laguntza tekniko ematea, bai erosketa publiko berdea instituzionalizatzeko proze-

suak hobetzean, bai lizitazioetan (ingurumen-irizpideak txertatzea, balorazioa eta segimendua).

5. Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburuan garatutako produktu eta zerbitzuetarako irizpideak zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea.

LERRO ESTRATEGIKOA: Kontratazio-prozeduretan integratzea

Dauden kontratazio-prozedurak eta -tresnak aztertuz, mekanismoak identifikatu eta ezarri nahi dira, kontratazioan ingurumen-irizpideak modu eraginkorrean eta normalizatuan txerta daitezten.

Integrazioaren helburuak dira ingurumena errespetatzen duten erosketak biderkatzea, denboran zehar horrelako erosketak egiten jarraitzea eta segimendu-lanak erraztea, ingurumen-irizpideak modu normalizatuan txertatuta gera daitezten kontratazio-prozesuetan.

Hauek dira lerro honetako jarduerak:

6. Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea, ingurumen-irizpideak modu eraginkorrean txertatzeko, bai inplementaziorako, bai segimendurako.
7. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozedurak birdefinitzea, erosketa eta kontratazio publiko berdea normalizatuta egon dadin administrazioetan; hala, langile berriek erraz jakingo dute nola funtzionatu.
8. Bere modalitateetan (erosketa zentralizatuak, esparru-akordioak eta erosketa-zentralak) zentralizatutako erosketa publiko berdea sustatzea, emaitzak areagotzeko. Horretarako, baliteke aukerak zenbait mailatan sakonki aztertu behar izatea.

LERRO ESTRATEGIKOA: Prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa

Erosketa- eta kontratazio-prozesuetan parte hartzen duten langileak gaitzea du helburu, maila guztietan, ingurumenaren aldetik arduratsua den kontratazioak dakartzan onuren inguruan, guztia ere ezagutza- eta sentsibilizazio-eza gainditzeko eta praktikan ezartzeko.

Kontratazio-prozesuetan parte hartzen duten langileek (zerbitzu teknikoek, kontratazioaren alorrekoek edota esku-hartzekoek) beharrezko ezagutza eskuratu beharko dute ingurumenaren aldagaia kontratazioaren ziklo osoan txertatzeko.

Eta, bestetik, administrazioetako gainerako langileek ekintzon berri izan behar dute eta eguneroko jardunbide egokiak txertatzen parte hartu beharko dute, erosketa-prozesuko emaitzak optimizatzeko.

Hauek dira lerro honetako jarduerak:

9. Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan txertatzea, eta, horretarako, urtean gai jakinei buruzko bi ikastaro ematea, profil desberdinak dituztenei zuzenduak (teknikariak, esku hartzeko langileak, erosketa eta kontratazioetako langileak...).
10. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) prestakuntza-eskaintzaren barruan, kontratazio-langileen autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea.
11. Sentsibilizazio-ekintzak egitea maila guztietan, esparru guztietan eta tartean sartutako administrazioeko eragile guztientzat.

LERRO ESTRATEGIKOA: Merkatuarekin koordinatzea

Lerro estrategiko honen bidez, EAEko sektore pribatua mobilizatu nahi da programa honetan modu aktiboan parte har dezaten, eta, ondorioz, ahalik eta modu aurreratuenean jakin dezaten administrazio publikoaren beharrei nola erantzun.

Hala, euskal enpresak garaiz integratuko dira irizpide teknikoak garatzeko prozesuan, eta, horrez gain, administrazioarekin harremanetan egongo dira zer behar eta eskari dituzten hobeto jakiteko. Elkarrizketa-prozesuok eta ildo estrategiko honetako gainerako ekintzek industria gaitu nahi dute oro har, modu gardenean, kontratazio publikoaren alorreko erregelamenduek diotena betetzeari utzi gabe (tratu ekitatiboa, bereizkeriarik eza...).

Martxan ipiniko diren jarduketak guztiak Fabrikazio Berdeko Programaren barruko gainerakoekin koordinatuta egongo dira (edota euskal industriara zuzendutako gainerako planekin).

Hauek dira lerro honetako jarduerak:

12. Fabrikatzaileei eta hornitzaileei erosketa berderako irizpide teknikoak (1. jarduerari lotuak) egiteko prozesuan parte harraraztea, eztabaida-foroen bitartez.
13. Hornitzaileen eta erosleen artean topaketak antolatzea, elkarrizketarako, trukerako, eztabaidarako eta premiak asetzeko mahaiak antolatzeko.
14. Industria trebatzea berrikuntza ekarriko duten erosketa-prozesuetan, enpresek beren aukerak hobeto aprobeztatu ahal izan ditzaten.
15. Hornitzaileentzat prestakuntza-ikastaro orokorrak garatzea, eskaintzetan ingurumen-aldagaia nola txerta dezaketan ikasteko.

LERRO ESTRATEGIKOA: Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana

Etengabeko komunikazioaren, jardunbide egokiak trukatzearen eta gure mugez kanpoko sareetan eta taldeetan aktiboki parte hartzearen bidez, ahalik eta gehien baliatu nahi dira sinergiak, eta euskal administrazioak erreferentzia gisa kokatu nahi dira, bai hemen, bai kanpoan.

Gaia erregulartasunez hedatuz, interesari eusten zaio, eta gaian sentsibilizatzea lortzen da. Emaitzak herritar guztiei aurkeztuz, administrazioaren gardentasuna, sinesgarritasuna eta eredia emateko duen papera areagotzen dira. Europako eta nazioarteko foroetan parte hartuz eta jardunbide egokiak hedatuz, etengabeko hobekuntza eta berrikuntza sustatzen dira.

Hauek dira lerro honetako jarduerak:

- 16.** Hedapen-ekintzak maiz egitea (albisteak eta joera-txostenak), gaiarekiko interesari eta sentsibilizazioari eusteko.
- 17.** Jardunbide egokien eta emaitzen berri ematea, ahaleginak aitortzeko eta eredia emateko zeregina indar handiagoarekin egiteko.
- 18.** Programaren gauzatze-mailaren eta helburu instituzionalen lorpen-mailaren urteko emaitzak argitaratzea, konpromisoa erakusteko.
- 19.** Europako eta/edo nazioarteko sareetan, lantaldeetan eta proiektuetan aktiboki parte hartzea.



I. eranskina

Jarduera-fitxa indibidualak

Jarraian, Programa honetan jasotako jarduera bakoitzaren deskripzio-fitxak jasotzen dira, bai eta gauzatze-kronograma ere.

LERRO ESTRATEGIKOA	JARDUERAK
Implementaziorako edukia eta tresnak	1. Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburua eguneratzea eta osatzea
	2. Programan lehenesten diren produktu/zerbitzuetarako ereduak pleguen proposamenak egitea
	3. Esparru berritzaileetan ekintza pilotuak egitea
	4. Laguntza teknikoa ematea
	5. Garatutako produktu eta zerbitzuetarako irizpideak zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea
Kontratazio-prozeduretan integratzea	6. Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea
	7. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozesuak birdefinitzea
	8. Zentralizatutako erosketa publiko berdea sustatzea
Prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa	9. Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan txertatzea
	10. Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea
	11. Sentsibilizazio-ekintzak egitea
Merkatuarekin koordinatzea	12. Fabrikatzaileei eta hornitzaileei irizpide teknikoak egiteko prozesuan parte harraraztea
	13. Hornitzaileen eta erosleen artean topaketak antolatzea
	14. Berrikuntzaren erosketaren prozesuetan parte hartzea erraztea
	15. Hornitzaileentzako trebakuntza-ikastaroak egitea
Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana	16. Hedapen-ekintzak maiz egitea
	17. Jardunbide egokien berri ematea
	18. Programaren gauzatze-mailaren eta helburu instituzionalen lortze-mailaren urteko emaitzak argitaratzea
	19. Europako eta/edo nazioarteko sareetan, lantaldeetan eta proiektuetan aktiboki parte hartzea



LERRO ESTRATEGIKOA		Inplementaziorako edukia eta tresnak		
1. jarduera:		Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburua eguneratzea eta osatzea		
Helburuak:				
<ul style="list-style-type: none"> Egungo Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburu Praktikoa eguneratzea eta sinplifikatzea, modu praktikoagoan eta errazago erabil dadin. Gidaliburua osatzea, ingurumen-inkatu eta inaktu ekonomiko handia duten eta kontratazio publikoa kontsumitzaile nagusia den produktu- eta zerbitzu-multzoak jorratzeko. 				
Deskribapena:				
<p>Egungo Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburu Praktikoa, eta, bereziki, kontrataziorako ingurumen-irizpideak, erreferentzia bat dira eta izan dira beren erorketa eta kontratueta ingurumen-irizpideak inplementatzen dituzten hainbat euskal administrazioentzat.</p> <p>Europar nagusi den joera da irizpide-kopurua sinplifikatzea eta irizpideak 2014an kontratazio-Zuzentarauean egin ziren aldaketen arabera birdefinitzea. Horrek lotura du kontratazioan ingurumen-irizpideak txertatzen diren segimendua eta monitoretza egiteko prozesuekin ere.</p> <p>Bestalde, kontratazio publiko berdea sektore hauetara ere eraman behar da: kontratazio publikoak eragin handia duen sektoreak eta/edo inaktu handia duten esparruak izateagatik ingurumen-hobekuntza nabarmenak lor daitezkeen sektoreak.</p> <p>Honela berrikusi eta hobetu behar da gidaliburua:</p> <ul style="list-style-type: none"> Dauden produktu- eta zerbitzu-multzoetarako irizpideak eguneratuz eta sinplifikatuz, eta nahitaezko bizpahiru irizpide gako eta hautazko beste batzuk ezarriz, bikaintasunerako. Irizpideen fitxetan, dokumentu bereiz batean gaur egun jasota dauden egiaztatze-bitartekoak sartuz (egiaztapen-zerrendak), errazago kontsultatu eta erabil daitezzen. Administrazio publikoekin eta sektore pribatuarekin (euskal fabrikatzaile eta hornitzaileak) aldaketak alderatuz truke-taldeetan eta alderatze-foroetan. Inaktu handia duten sektoreetarako irizpideak eginez; zehazki, sektore hauetarako: obra zibila eta azpiegiturak (adibidez, eraikuntza- eta eraiste-hondakinak edo zaborrak berrerabiltzea sustatzeko), elektrizitatea, garraio-zerbitzuak, bideetako garbiketa-zerbitzuak eta hondakinen bilketa (airearen kalitatea hobetzen eta CO₂ emisioak murrizten laguntzeko). 				
Erakunde arduraduna:	Ihobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Atxikitako administrazioak Fabrikatzaileak eta hornitzaileak	
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	2.a, 4.a, 5.a, 10.a, 11.a, 12.a, 13.a, 16.a, 17.a, 19.a	2020rako IEPren helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 1.1/ 1.3/ 2.1/ 2.3/ 4.1/ 4.4/ 4.5/ 5.1/ 5.2/	
Segimendu-adierazlea:	Programan lehenetsi diren eta irizpide berrikusiak eta/edo garatuak dituzten produktu- eta zerbitzu-multzoen ehunekoa			
Gauzatzea:	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Inplementazio-urtea(k):
	Hasi gabe	Abian	Amaituta	

LERRA ESTRATEGIKOA		Inplementaziorako edukia eta tresnak			
2. jarduera:		Programan lehenesten diren produktu/zerbitzuetarako eredu-zerbitzuen pleguen proposamenak egitea			
Helburuak:					
<ul style="list-style-type: none"> Kontrataziorako oinarriko dokumentuetako batean erakustea (baldintza-orriak) nola txertatu Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburu Praktikoko ingurumen-irizpideak. 					
Deskribapena:					
<p>Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburu Praktikoko irizpideak idatzi dira sektore publikoko kontratuen legean ezarritako arauak errespetatuz, baldintza-orrietan zuzenean eta modu seguruan sartu ahal izan daitezten.</p> <p>Hala eta guztiz ere, administrazio batzuek zailtasunak dituzte oraindik beren lizitazioetan irizpide horiek eraginkortasunez txertatzeko. Urratsak behar bezala egiten direla egiaztatzeko eta lan horretan segurtasun handiagoa izateko, kontratazio-arduradunek, sarritan, beste administrazio batzuek argitaratu dituzten eta ingurumen-irizpideak dituzten baldintza-orriak aztertzen dituzte. Beste batzuetan, berriz, eredu-orri moldagarriak edukitzea ere eskatzen dute, beren lizitazioetarako oinarri gisa erabil ditzaten.</p> <p>Premia hori hauteman ondoren, eta Programaren helburuak betetzeko, jarduera honekin eredu-orriak egiten dira Programan lehenetsitako produktu eta zerbitzuetarako. Eredu-orriak egin behar dira parte hartu duen administrazioen batek egindako lizitazio arrakastatsuetan erabilitako oinarri jarraikiz, zenbait eskakizun-mailatako ingurumen-irizpideak txertatuz.</p>					
Erakunde arduraduna:	Ihobe		Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Atxikitako administrazioak	
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	1.a, 4.a, 10.a, 11.a, 16.a, 17.a, 19.a		2020rako IEPreko helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 4.5/ 5.2	
Segimendu-adierazlea:	Programan lehenetsita dauden eta eredu-orria daukaten taldeen ehunekoa				
Gauzatzea:	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Inplementazio-urtea(k):	2016-2018
	Hasi gabe	Abian	Amaituta		

LERRA ESTRATEGIKOA		Implementaziorako edukia eta tresnak			
3. jarduera:		Esparru berritzaileetan ekintza pilotuak egitea			
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontratazio publikoaren ikuspegi eta jardunbide berriak aplikatzen esperientzia irabaztea. Ikuspegi eta jardunbide horiek baliabideen eraginkortasuna eta ekoberrikuntza sustatzen dituzte. • Ikasitako ikasbideak partekatzea, gaian aurrera egiteko eta Europa hegoaldean erreferentzia gisa kokatzeko. 					
<p>Deskribapena:</p> <p>Egungo lege-esparruarekin, dagoeneko badago aukera kontratazio ekoberritzaileak eta bizi-ziklo osoko kostuak kontuan hartzen dituzten kontratazioak egiteko (ibilgailuen Zuzentarauak ezartzen duen bezala). Kontratazio-Zuzentaruaren aldaketarekin, are errazagoa izango da kontratazio publikoan ikuspegi eta jardunbide berriak txertatzea, modu zuzenagoan lagundu dezan Europar Batasuneko garapen adimendun, jasagarri eta berritzailearen helburuak betetzen.</p> <p>Ikuspegi horiek barnean hartzen dituzte kontratazio aurre-komertziala eta berrikuntza-kontratazioa, kontratazio zirkularra, baldintza funtzionalen araberrako kontratazioa eta bizi-zikloaren kostuak kontuan hartzen dituen kontratazioa (bai jabetza-kostuak, bai ingurumenaren kanpo-efektuak nazioarteratzeari lotutakoak).</p> <p>Aukerak egon arren, ikuspegi horietako gehienetan euskal administrazioek ez dute benetako eta zuzeneko esperientziarik ikuspegi berri horiek eta lotutako kontratazio-prozedurak aplikatzeari buruz. 2020an jardunbide horiek hedatzeko ezagutza irabazteko, jarduera hauek egin behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Lantaldeak antolatzea gai horietako bakoitzerako. – Lantaldeetan parte hartzen duten edo gaian interesa duten administrazioetako batek gutxienez lizitazio pilotu bat egitea ikuspegi berri horiek aplikatuz. – Dibulgaziozko txostenak egitea, kasu praktiko gisan, prozesuaren laburpenarekin, lortutako emaitzekin eta ikasitako ikasbideekin. – Ekintzen eta emaitzen berri ematea, haiek errepikatzea sustatzeko. 					
Erakunde arduraduna:	Ihobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Atxikitako administrazioak Euskal enpresak		
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	4.a, 14.a, 15.a, 17.a, 18.a, 19.a, 20.a	2020rako IEPren helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 2.1/ 2.3/ 2.4/ 5.3/ 6.1		
Segimendu-adierazlea:	Egindako eta dokumentatutako ekintza pilotuen kopurua (urtekoak eta pilotutakoak)				
Gauzatzea:	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Implementazio-urtea(k):	2017-2020
	Hasi gabe	Abian	Amaituta		

LERRA ESTRATEGIKOA		Implementaziorako edukia eta tresnak	
4. jarduera:		Laguntza teknikoa ematea	
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskal administrazioei laguntzea beren kontratazio-prozeduretan eta -ekintzetan ingurumen-ikuspegia txertatzen, hura gehiago implementatzeko. Benetako emaitzak lortzera bideratutako zerbitzu bat ematea. 			
<p>Deskribapena:</p> <p>Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakiaren eta Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 1. Programaren segimendu-txostenetan eta gogoeta-bileretan euskal administrazioek identifikatu duten premietako bat da beren kontratazio-prozesuetan ingurumen-erantzukizuna inplementatzeko laguntza tekniko pertsonalizatua.</p> <p>Ihobe 2005etik ari da aholkularitza pertsonalizatuaren zerbitzu hori ematen, eta, hari esker, hainbat administrazio ingurumen-irizpideak txertatu dituzte beren erosketa eta lizitazioetan.</p> <p>Jarduera honek jarraipena ematen dio euskal administrazio publikoek gai horretan planteatzen dituzten berriazko eskaera eta premiei erantzuteko lhobek egiten duen lan horri, eta xede hauetarako laguntza ematen jarriko du arreta:</p> <ul style="list-style-type: none"> Barne-prozedurak hobetzea, erakundeetan erosketa publiko berdea gehiago instituzionalizatzeko. Erosketa- eta kontratazio-prozesuetan ingurumen-irizpideak txertatzea, premiak zehaztuz, baldintza-orrietan ingurumen-irizpideak txertatuz, jasotako eskaintzak aztertuz, eta, hala dagokionean, esleipendunak betetzeko konpromisoa hartzen duen ingurumen-arauak betetzen dituela segimendua eginez. Administrazioek izan dezaketen beste edozein eskaera, erosketa publiko berdeari lotua, betiere lhoberen zereginen barruan sartzen bada. 			
Erakunde arduraduna:	Ihobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Atxikitako administrazioak Euskal enpresak
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	1.a, 2.a, 3.a, 5.a, 6.a, 7.a, 8.a, 17.a, 18.a, 19.a	2020rako IEPren helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 4.1/ 4.4/ 4.5/ 5.2
Segimendu-adierazlea:	Jasotako eskaeren kopurua eta erantzunen ehunekoa (urtekoa eta pilatutakoa)		
Gauzatzea:	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	Hasi gabe	Abian	Amaituta
	Implementazio-urtea(k):		2016-2020

LERRO ESTRATEGIKOA		Implementaziorako edukia eta tresnak			
5. jarduera:		Garatutako produktu eta zerbitzuetarako irizpideak zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea			
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Zuzeneko erosketan (administrazioak egindakoa) erosketan eta kontratazio publiko berdea egiteko baliabideak eskaintzea. 					
<p>Deskribapena:</p> <p>Administrazioaren erosketan eta kontratazio guztiak ez dira baldintza-orriak dituzten lizitazioen bidez egiten. Zati handi bat, batez ere administrazio txikietan, maila txikiagoko kontratuen eta zuzenean erosteko aginduen bidez egiten da.</p> <p>Jarduera honen helburua administrazio txikiak erantzukide izateko eta erosketan eta kontratazio arduratsua egin ahal izateko baliabideak ematea da.</p> <p>Bestalde, programa honen arlokoa ez izan arren, enpresen sektoreak ere emaitzak erosketan pribatuaren ikuspuntutik erabili ahal izango dituzte. Izan ere, ez dituzte bete behar herri-administrazioak errespetatu behar dituen mugak.</p> <p>Hala, xede hauetaz arduratuko da jarduera hau:</p> <ul style="list-style-type: none"> Zuzeneko erosketarako jada eskura dagoen materiala egokitzea, Erosketan eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburua eguneratzeko (1. jarduera) Irizpideak jarri zaizkien produktu- eta zerbitzu-multzo berrietarako fitxa eta baliabide berriak egitea (1. jardueraren zati gisa). Aldaketak administrazioekin alderatzea, eta, batez ere, esparru horretan sartuta dauden enpresekin 					
Erakunde arduraduna:	lhobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:		Atxikitako administrazioak Enpresa pribatuak	
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	1.a, 4.a, 10.a, 11.a, 12.a, 13.a, 16.a, 17.a, 19.a	2020rako IEPreko helburuei egindako ekarpena:		Jarduera-lerroak: 2.1/ 2.3/ 4.5/ 5.1/ 5.2/	
Segimendu-adierazlea:	Zuzeneko erosketan eta/edo erosketan pribaturako fitxak egin zaizkien eta gidaliburuan dauden taldeen ehunekoa.				
Gauzatzea:	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Implementazio-urtea(k):	2016
	Hasi gabe	Abian	Amaituta		

LERRO ESTRATEGIKOA		Kontratazio-prozeduretan integratzea			
6. jarduera:		Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea			
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehendik dauden kontratazio-ereduetan eta -tresnetan ingurumen-irizpideak ahalik eta gehien txertatzea. • Kontratazio publiko berdearen eta, ondorioz, Programaren helburuen betetze-mailaren segimendua erraztea. 					
<p>Deskribapena:</p> <p>Administrazio publikoek eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzak hainbat tresna dituzte, hala nola eredu-orriak, kontratazio-plataformak (adibidez, ATRIO eta REVASCON)..., kontratazio-ekintzak egiteko. Haietan, ondoren kontratazioaren segimendua egiteko aukera ematen duen informazioa jasotzen da.</p> <p>Kontratazio-prozesuek berezkoa izan dezaten kontratazio publiko berdea, ingurumen-irizpideek ez dute egon behar txertatuta prozeduretan bakarrik (7. jarduera), baita ohiko kontratazio-tresnetan ere.</p> <p>Hori dela eta, administrazio parte-hartzaile bakoitzak honako hauek egin behar ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Bere erakundearen dauden tresnak aztertu. – Tresna horietan ingurumen-irizpideak txertatzeko aukerak identifikatu. – Ingurumen-irizpideak pixkanaka txertatzeko neurriak lehenetsi. – Ingurumen-irizpideak lehendik dauden tresnetan txertatu. <p>Eusko Jaurlaritzan, Ogasun eta Finantza Sailak egin behar du jarduera hau, lhoberekin lankidetzan.</p> <p>Administrazio parte-hartzaileetan, administrazioek berek egin behar dute jarduera hau, eta lhobek laguntza emango die truke-taldean eta laguntza-zerbitzuen bidez.</p>					
Erakunde arduraduna:	Ogasun eta Finantza Saila eta lhobe Atxikitako administrazioak	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	lhobe		
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	4.a, 7.a, 8.a, 9.a, 17.a, 18.a, 19.a	2020rako IEPren helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 4.5/ 5.1/ 5.2		
Segimendu-adierazlea:	Ekintza egin duten administrazio parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa.				
Gauzatzea:	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Inplementazio-urtea(k):	2016 (edo Programari atxikita emandako lehenengo urtea)
	Hasi gabe	Abian	Amaituta		

LERRO ESTRATEGIKOA		Kontratazio-prozeduretan integratzea			
7. jarduera:		Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozesuak birdefinitzea			
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erakundeen erosketa- eta kontratazio-prozesuetan ingurumen-irizpideak sistematikoki txertatzen direla ziurtatzea. • Normalizazioa bermatzea eta bere betetzea ere ziurtatzea lehendik dauden langile guztietan eta langile berrietan. 					
<p>Deskribapena:</p> <p>Erosketa eta kontratazio publiko berdea jardunbide normalizatua eta barneratua izan dadin erakundeetan, administrazio bakoitzak gai horretan dituen ohiko prozesuen eta prozeduren (adibidez, barneko kontratazio-argibideak) parte izan behar dute ingurumen-irizpideek.</p> <p>Hala, lizitazio eta erosketa eraginkorragoak lortzeaz gain, ezagutza transferitzea eta jarraipena ziurtatzen dira, baita prozesu horretan langile berriak (bai teknikoak, bai administratiboak) sartzen direnean ere.</p> <p>Horretarako, Programan parte hartzen duen administrazio bakoitzak betebeharrak izango ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Bere kontratazio-prozedurak egokitzea, produktuak eta zerbitzuak erosteko eta kontratatzekeo prozesuetako etapetan ingurumen-irizpideak txertatzeko, eta/edo – Prozedura horiek zehaztea, administrazioak oraindik ez baldin badauzka, eta – Prozedura berriak kontratazioan parte hartzen duten langile guztiei jakinaraztea, eta, beharrezkoa bada, trebakuntza egitea. <p>Eusko Jaurjaritzan, Ogasun eta Finantza Sailak egin behar du jarduera hau, lhoberekin lankidetzan.</p> <p>Administrazio parte-hartzaileetan, administrazioek berek egin behar dute jarduera hau, eta lhobek laguntza emango die truke-taldean eta laguntza-zerbitzuen bidez.</p>					
Erakunde arduraduna:	Ogasun eta Finantza Saila eta lhobe Atxikitako administrazioak	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	lhobe		
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	4.a, 6.a, 8.a, 9.a, 17.a, 18.a, 19.a	2020rako IEPre helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 4.5/ 5.1/ 5.2		
Segimendu-adierazlea:	Erosketa eta kontratazio publiko berderako prozedurak dituzten administrazio parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa				
Gauzatzea:	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Implementazio-urtea(k):	2016-2017
	Hasi gabe	Abian	Amaituta		

LERRA ESTRATEGIKOA		Kontratazio-prozeduretan integratzea		
8. jarduera:		Zentralizatutako erosketak publiko berdea sustatzea		
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen-irizpideak kontuan hartzen dituzten erosketak eta kontratazioak optimizatzea eta erraztea, kudeaketa optimizatuago eta eraginkorrago baten bidez. 				
<p>Deskribapena:</p> <p>Produktu- eta zerbitzu-multzo jakin batzuen erosketak eta kontratazioak optimizatzeko estrategietako bat da haien erosketak eta kontratazioak (bere modalitate ezberdinetan) zentralizatzea (erosketak zentralizatuak, esparru-akordioak eta erosketak-zentralak).</p> <p>Erosketak eta kontratazioak zentralizatuz, eta haietan ingurumen-irizpideak txertatuz, erosketaren edo kontratazioaren emaitzak hobetzen dira, eta ingurumenari dagokionez arduratsua den kontratazioaren onurak eraginkortasunez areagotzen dira.</p> <p>Ingurumen-irizpideak dituzten erosketak eta kontratazio zentralizatuak sustatzeko, ekintza hauek egin behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Lehendik dauden erosketak eta kontratazio zentralizatuaren ereduak aztertu behar dira. – Ogasun eta Finantza Sailak ingurumen-irizpideak txertatu behar ditu Eusko Jaurlaritzan jada zentralizatuta dauden erosketetan eta kontratazioetan. – Ogasun eta Finantza Sailarekin lan egin behar da, gaur egun egiten diren baino erosketak zentralizatu gehiago egiteko aukera aztertzek, bai produktu zentralizatuaren multzoetan, bai onura lor dezaketen administrazioetan. – Erosketak-zentralak tokiko esparruan sustatu behar dira (Foru Aldundian, eskualdean eta/edo udalerrian). 				
Erakunde arduraduna:	Ihobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Ogasun eta Finantza Saila Atxikitako administrazioak	
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	4.a, 6.a, 7.a, 14.a, 17.a, 18.a, 19.a	2020rako IEPren helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 4.1/ 4.5 / 5.1 / 5.2	
Segimendu-adierazlea:	Egindako baterako erosketak sustatzeko ekintza-kopurua. Finkatutako erosketak zentralizatuaren eta/edo erosketak-zentralen kopurua.			
Gauzatzea:	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Implementazio-urtea(k):
	Hasi gabe	Abian	Amaituta	2016-2017

LERRA ESTRATEGIKOA		Prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa		
9. jarduera:		Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan txertatzea		
Helburuak:				
<ul style="list-style-type: none"> Kontratazio publikoan parte hartzen duten langile guztiak trebatzea, ingurumen-irizpideak dituzten erosketak eta kontratazioak modu autonomoan eta seguruan egin ditzaten. 				
Deskribapena:				
<p>Kontratazio publikoko prozesuetan ingurumen-irizpideak arrakastaz inplementatzeko elementu gakoetako bat da administrazioko langileak trebatzea eta gaitzea. Horri esker, erosketa publiko berdea egiteko oztopo nagusietako bat kentzen da: ezagutzarik eza.</p> <p>Kontratazio-prozesuetan, zenbait profesionalek hartzen dute parte, kontratatu behar den produktuaren edo zerbitzuaren arabera; beraz, funtsezkoa da haiek guztiak trebatzea, prozesua arina eta eraginkorra izan dadin.</p> <p>Hori dela eta, Programaren barruan, urtero gaiari buruzko 2 ikastaro emango dira, ezagutza aurreratua transferitzeko, arazoak konpontzeko, aplikazio praktikorako eta esperientziak trukatzeko. Ikastaro horiek jarraipena emango diete lhobek eta HAEEK gai horri buruz jada antolatu dituztenei.</p> <p>Ikastaro bakoitzak berariazko gaia izango du, parte-hartzaileen profilaren eta interesaren arabera (zerbitzu teknikoak, erosketa- eta kontratazio-teknikariak...), eta ikuspegi praktiko eta partaidetzazko baten bidez egingo dira, parte-hartzaileek aukera izan dezaten kontratazio publiko berdeak eraginkortasunez egiteko behar diren gaitasunak eskuratzeko.</p>				
Erakunde arduraduna:	lhobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	HAEE Atxikitako administrazioak	
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	1.a, 5.a, 11.a, 16.a, 17.a, 18.a, 19.a	2020rako IEPren helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 4.1 / 5.1 / 5.4	
Segimendu-adierazlea:	Urtean eta guztira eskainitako trebakuntza-ikastaroen kopurua Trebakuntza-ikastaroetako parte-hartzaileen kopurua Jasotako trebakuntzaz iritzi ona duten parte-hartzaileen ehunekoa			
Gauzatzea:	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Implementazio-urtea(k):
	Hasi gabe	Abian	Amaituta	2016-2020

LERRO ESTRATEGIKOA		Prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa		
10. jarduera:		Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea		
Helburuak:				
<ul style="list-style-type: none"> Erosketa eta kontratazio publiko berdean dituzten zalantzak norberaren kabuz argitzeko eta gai horretako autoikaskuntzarako baliabideak ematea kontratazioan parte hartzen duten administrazio langileei. 				
Deskribapena:				
<p>Kontratazioan parte hartzen duten langile berri guztiek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) ematen duen berriazko trebakuntza bat jaso behar dute, gai horretan oinarritzko ezagutzak lortzeko.</p> <p>Kontratazio publikoaren gaia oso zabala denez, 10. jardueraren baitan urtero antolatzen diren erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko trebakuntza-ikastaroez gain, Programak erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko prestakuntza-moduluak egingo ditu autoikaskuntzarako.</p> <p>Modulu horiek langile berriei zuzenduta egongo dira, bai eta gaia ezagutzen duten baina ezagutzak trinkotu eta/edo materialak jorratzen dituen zalantza jakin batzuk argitu nahi dituzten langileei ere.</p> <p>Erosketa publiko berdeari buruzko moduluak HAEEk lehendik dituen prestakuntza eta materialen osagarriak izango dira. Modulu horiek HAEEekin batera egingo dira, garrantzia dutela eta jada eskura dagoen material gutzia osatzen dutela ziurtatzeko.</p>				
Erakunde arduraduna:	Ihobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	HAEE Atxikitako administrazioak	
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	1.a, 5.a, 10.a, 16.a, 17.a, 18.a, 19.a	2020rako IEPre helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 4.1 / 5.1 / 5.4	
Segimendu-adierazlea:	Egindako modulu-kopurua Moduluak ikasten ari diren parte-hartzaileen kopurua			
Gauzatzea:	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Implementazio-urtea(k):
	Hasi gabe	Abian	Amaituta	2016-2020

LERRO ESTRATEGIKOA		Prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa			
11. jarduera:		Sentsibilizazio-ekintzak egitea			
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Administrazio publikoak sentsibilizatzea funtzionamendu eraginkor bat lortzeko kontratazio publiko berdea egiteak dituen garrantziaz eta benetako onurez. • Langile guztiak ohitura eta jardunbide egokiez kontzientziaztea, ingurumenari dagokionez hobeak diren produktuak eta zerbitzuak erosteagatiko eta erabiltzeagatiko onurak optimizatzen. 					
<p>Deskribapena:</p> <p>Kontratazioan parte hartzen duten langileek, trebakuntzaz gain, jakitun izan behar dute ingurumen-irizpideak dituzten erosketak eta kontratazioak erakundearen eguneroko kudeaketarako dituzten garrantziaz eta benetako onurez.</p> <p>Bestalde, nahiz eta erosketak eta kontratazio berdearekin ingurumena hobeto zaintzen duten ondasunak eta zerbitzuak eskuratzen diren, kasu askotan erabilera-ohiturei eta kudeaketa globalaren ohiturei esker optimizatzen dira benetako onurak. Gainera, premiak ongi planifikatuz eta birplanteatuz, are gehiago maximiza daitezke erosketak berdearen emaitza onak.</p> <p>Horregatik guztiagatik, Programak administrazioaren maila guztietako arduradunak eta erabiltzaileak sentsibilizatzeko ekintzak egin behar ditu aldian behin. Hauek dira ekintzetako batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Erositako edo kontratatutako produktu eta zerbitzu berdeak hobetzeko, planifikatzeko, erabiltzeko eta kudeatzeko informazioa jasotzen duten fitxa laburrak egitea. – Koordinatzea, administrazio parte-hartzaileek Interneteko atarietan dituzten erosketak eta kontratazio berdeari buruzko materialetarako sarbide azkarrak txerta ditzaten. – Erosketak berdea balioesteko eta administrazio konprometituenak aintzatesteko jardunaldiak antolatzea. 					
Erakunde arduraduna:	lhobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Atxikitako administrazioak		
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	1.a, 5.a, 17.a, 18.a, 19.a, 20.a	2020rako IEPren helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 4.1/ 5.1/ 5.2		
Segimendu-adierazlea:	Egindako sentsibilizazio-ekintzen kopurua Gidaliburuan dauden eta fitxa laburra duten taldeen kopurua eta ehunekoa				
Gauzatzea:	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Implementazio-urtea(k):	2016-2020
	Hasi gabe	Abian	Amaituta		

LERRO ESTRATEGIKOA		Merkatuarekin koordinatzea	
12. jarduera:		Fabrikatzaileei eta hornitzaileei irizpide teknikoak egiteko prozesuan parte harraraztea	
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskadiko sektore pribatuari kontratazio publikoaren ingurumen-irizpideak garatzen parte harraraztea, koordinazioa optimizatzeko eta elkarrekin euskal merkatu lehiakorrago, adimendunago eta jasangarriago baterantz aurrera egiteko. 			
<p>Deskribapena:</p> <p>Ingurumen-irizpideekin egiten den erosketak eta kontratazioak arrakasta izan dezan, ondo koordinatuta egon behar dute administrazioen eskariak eta merkatuak ingurumen-eskakizunen aurrean dituen aurrerapenak eta gaitasunak.</p> <p>Merkatuaren koordinazio eta trakzio hori ziurtatzeko, Programaren baitan foroak antolatuko dira Euskadiko enpresa fabrikatzaileekin eta hornitzaileekin, euskal administrazio guztientzat erreferentzia den Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburu Praktikoan jasotako ingurumen-irizpideak elkarrekin zehazteko eta/edo aztertzeke (1. jarduera).</p> <p>Foroak Programa honetan lehenetsitako produktu- eta zerbitzu-multzoetarako antolatuko dira, eta ingurumen-irizpideak garatuko dira haientzat (1. jarduera). Foro horiek aukera emango dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskadiko industria- eta enpresa-sektoreari jakinarazteko zer ingurumen-irizpide bultzatu nahi diren euskal administrazio guztietan. Proposatutako ingurumen-irizpideen inguruko kezkek, aurrerapenak eta haien baliozkotasuna trukatzeko sektorearekin. Euskadiko eskualde-merkatua suspertzeko. <p>Horrez gain, Euskadiko industriak proposatu ahal izango ditu beste produktu- eta zerbitzu-multzo batzuetarako irizpideak, ingurumenarentzat onura frogatuak dituztenak.</p>			
Erakunde arduraduna:	lhobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Atxikitako administrazioak Euskal enpresak
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	1.a, 5.a, 14.a, 17.a, 19.a	2020rako IEPreko helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 2.1 / 2.3 / 2.4 / 5.3 / 5.4
Segimendu-adierazlea:	Egindako foro-kopurua Parte hartu duten enpresen kopurua (foroko eta guztira)		
Gauzatzea:	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	Hasi gabe	Abian	Amaituta
	Implementazio-urtea(k):		2016

LERRO ESTRATEGIKOA		Merkatuarekin koordinatzea			
13. jarduera:		Hornitzaileen eta erosleen artean topaketak antolatzea			
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Eztabaida eta trukea erraztea eskaintzaren eta eskariaren artean. 					
<p>Deskribapena:</p> <p>Beren erosketetan eta kontratazioetan ingurumen-irizpideak txertatzen dituzten administrazio publikoen premietako bat da ingurumena gehien errespetatzen duten produktuen eta zerbitzuen eskaintza ezagutzea eta haien benetan «berdeagoak» egiten dituzten ezaugarriak ezagutzea. Hori bereziki garrantzitsua da, batez ere, espezifikoagoak edo berritzaileagoak diren sektore edo ikuspegientzat eta erreferentzia gisa balio dezaketen ingurumen-arau argiak beti izaten ez dituztenentzat.</p> <p>Bestalde, enpresa fabrikatzaile eta hornitzaile askok (handiek zein txikiek) ingurumena gehiago errespetatzen duten produktu, zerbitzu eta irtenbide berriak garatzen dituzte, beren merkataritza-estrategiaren eta bereizte-estrategiaren zati gisa.</p> <p>Kontratazio publikoaren arau-esparrua kontuan izanik, eta haren oinarriko printzipioak errespetatu behar direnez, garrantzitsua da komunikazio- eta topaketa-kanalak jartzea, administrazioek eta enpresek praktikotasunean oinarrituta eta gardenki eztabaidatu ahal izan dezaten beren premiez eta errealitate zehatzez.</p> <p>Horregatik, Programaren baitan urteroko topaketak antolatuko dira hornitzaileen eta erosleen artean. Topaketa horiek beste ekitaldi batzuekin koordinatuta antolatuko dira, ahaleginak koordinatzeko eta ekitaldiak probetxugarriagoak izan daitezen.</p>					
Erakunde arduraduna:	Ihobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Atxikitako administrazioak Euskal enpresak		
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	3.a, 8.a, 13.a, 15.a, 17.a, 19.a	2020rako IEPren helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 2.1/ 2.3 / 2.4 / 5.3 / 5.4		
Segimendu-adierazlea:	Antolatutako topaketa-kopurua Parte hartu duten erakundeen kopurua (topaketako eta guztira)				
Gauzatzea:	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Implementazio-urtea(k):	2017-2020
	Hasi gabe	Abian	Amaituta		

LERRO ESTRATEGIKOA		Merkatuarekin koordinatzea	
14. jarduera:		Erosketa berritzailearen prozesuetan parte hartzea erraztea	
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskadiko administrazioak eta enpresak sentsibilizatzea eta prestatzea kontratazio aurrekomertzialean eta ekoberritzailean gailentzen ari den joeraren aurrean. 			
<p>Deskribapena:</p> <p>Garapen adimendun, jasangarri eta integratzaile bat lortzeko, administrazio publikoek erosketa eta kontratazio publikoa erabili behar dute, beste estrategia eta tresna batzuekin batera. Horri esker, administrazioak modu eraginkorragoan funtzionatuko du, ingurumenean ahalik eta inpaktu txikiena izanez.</p> <p>Horretarako, erosketetan eta lizitazioetan ingurumen-irizpideak ohiko moduan ahalik eta gehien txertatzeaz gain, administrazioek berritzaileak izan behar dute beren kontratazio-prozesuetan, beren inpaktuak eta premia materialak murriztean jauzi kuantitatibo handi bat egitea lortuko duten irtenbideak inplementatzeko.</p> <p>Administrazioak ahalegin hori egin behar badu, Euskadiko sektore pribatuak ere prest egon behar du administrazioaren kontratazio-modu berrien aurrean, lehiakorrak izateko eta hobeto kokatuta egoteko Euskadi barruan nahiz kanpoan.</p> <p>Trantsizio hori errazteko eta euskal enpresak prestatzeko, arauak, baliabideak eta jardunaldiak egingo dira, dauden aukera guztiak aurkezteko. Hala, enpresek arinago egin ahal izango dituzte erosketa publiko ekoberritzaileako prozesuak.</p> <p>Baliabide eta jardunaldi horiek jardunbide egokiak ere aurkeztuko dituzte. Jardunbide egoki horiek erakutsiko dituzte, batetik, erosketa ekoberritzaile arrakastatsurako ikuspegiak eta premia eta baldintza berriak, eta, bestetik, kontratazio-mota hori egiteko aukera gehien dituzten administrazioei buruzko informazioa.</p>			
Erakunde arduraduna:	Ihobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasun Saila Atxikitako administrazioak Euskal enpresak
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	3.a, 14.a, 17.a, 18.a, 19.a	2020rako IEPrek helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 2.4 / 5.2 / 5.3 / 5.4
Segimendu-adierazlea:	Egindako ekintza-kopurua Parte hartu duten erakundeen kopurua (ekintzako eta guztira)		
Gauzatzea:	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	Hasi gabe	Abian	Amaituta
	Inplementazio-urte(k):		2017-2020

LERRO ESTRATEGIKOA		Merkatuarekin koordinatzea	
15. jarduera:		Hornitzaileentzako trebakuntza-ikastaroak egitea	
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskal enpresak prestatzea aukera gehiago izan ditzaten, Euskadi barruan nahiz kanpoan, ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioak lortzeko. 			
<p>Deskribapena:</p> <p>Enpresa lizitatzailerentzat, erosketa eta kontratazio publikoetan ingurumen-irizpideak sartzeak bi gauza eskatzen ditu batik bat: 1) eskaintzen dituzten produktuen eta/edo zerbitzuen ingurumen-ezaugarriak ondo ezagutzea, eta 2) ingurumenari dagokionez hobeak diren produktu edo zerbitzu horiek eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela frogatzeko aukera ematen duen egiaztapen-dokumentazioa edukitzea.</p> <p>Ingurumen-irizpideak frogatzeko, prestatu egin behar da aldez aurretik, justifikaziozko dokumentazio guztia administrazioak ezartzen dituen epeen barruan aurkeztu ahal izateko.</p> <p>Ahalik eta enpresa gehienek eraginkortasunez aurkeztu ahal izan ditzaten ingurumenari dagokionez hobeak diren eskaintzak, administrazio publikoa hornitzen duten egungo eta balizko enpresak gaitzeko ikastaroak egingo dira.</p> <p>Ikastaroak produktu- edo zerbitzu-multzoka antolatuko dira, eta oinarritzat hartuko dituzte Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburu Praktikoko irizpideak (1. jarduera), hori baita erreferentzia euskal administrazioentzat.</p> <p>Bestelako trebakuntzaren bat ere antolatu ahal izango da, enpresen artean berariazko premiak hautemango balira.</p> <p>Ildo estrategiko honetako gainerako jarduketak bezalaxe, modu gardenean egingo dira, kontratazio publikoaren alorreko erregelamenduek diotena betetzeari utzi gabe (tratu ekitatiboa, bereizkeriarik eza...).</p>			
Erakunde arduraduna:	lhobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Atxikitako administrazioak Euskal enpresak
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	1.a, 2.a, 5.a, 10.a, 11.a, 17.a, 18.a, 19.a	2020rako IEPren helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroa: 5.4
Segimendu-adierazlea:	Antolatutako ikastaro-kopurua Parte hartu duten enpresa hornitzaileen kopurua		
Gauzatzea:	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	Hasi gabe	Abian	Amaituta
	Implementazio-urtea(k):		2016-2020

LERRO ESTRATEGIKOA		Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana			
16. jarduera:		Hedapen-ekintzak maiz egitea			
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskal administrazioei informazio interesgarria, garrantzitsua eta inspiratzailea ematea, arlo honetan etengabe egin dezaten aurrera. 					
<p>Deskribapena:</p> <p>Esparru guztiak bezala, erosketa eta kontratazio publiko berdea ere etengabe bilakatzen ari da. Maiz onartzen dira baldintzak jartzen dituzten zuzentarau, lege eta/edo araudi berriak gai honi buruz; gidak, gidaliburuak eta mota guztietako baliabideak argitaratzen dira arau horiek inplementatzeko; administrazio publikoen parte-hartzea bilatzen da, erosketa eta kontratazio arduratsuen egoera ezagutzeko, eta estrategiak eta tresnak zehaztean beren ikuspegia eman dezaten; gaiari buruzko kongresuak eta jardunaldiak antolatzen dira; eta abar.</p> <p>Administrazio publikoek errazago lor dezaten informazio garrantzitsuena eta, hala, gaiari buruzko interesari eutsi dakion eta gaia eguneratu dadin, zenbait hedapen-ekintza egingo dira. Ekintza horien artean daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> Hiru hilean behin, arloko beritasunei buruzko txosten bat egitea. Albiste garrantzitsuenak argitaratzea Euskal Administrazioarentzat erosketa eta kontratazio publiko berdearen arloan erreferentzia diren webguneetan. Programaren barruan sortzen diren truke-taldeen bidez informazioa hedatzea. Topaketak, ekitaldiak eta jardunaldiak antolatzea. 					
Erakunde arduraduna:	Ihobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Atxikitako administrazioak		
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	Guztiak	2020rako IEPren helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 4.5 / 5.2		
Segimendu-adierazlea:	Urtean eta guztira egindako hedapen-ekintzen kopurua				
Gauzatzea:	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Implementazio-urtea(k):	2016-2020
	Hasi gabe	Abian	Amaituta		

LERRO ESTRATEGIKOA		Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana			
17. jarduera:		Jardunbide egokien berri ematea			
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskal administrazioen ahaleginak eta jardunbide egokiak aitortzea. • Beste administrazio batzuek ahalegin eta jardunbide egoki horiek egin ditzaten sustatzea. 					
<p>Deskribapena:</p> <p>Erosketa eta kontratazio publiko berdearen jardunbideak sendotzeko, garrantzitsua da emaitza onak erakustea eta urratsez urrats eraikitzea norberaren nahiz antzeko beste administrazio batzuen esperientzia arrakastatsuen gainean. Horretarako, jardunbide egokiak jaso eta hedatu egin behar dira.</p> <p>Helburu horrekin, Programa honek irauten duen bitartean, lorpen hauek izan dituzten adibide arrakastatsu eta garrantzitsuenak jaso, dokumentatu eta zehatz aztertuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Administrazioaren erosketetarako eta kontratazioetarako prozesuetan, prozeduretan eta tresnetan ingurumen-irizpideak txertatzea. – Programan lehenetsitako produktuak eta zerbitzuak erostean edo kontratatzean ingurumen-irizpideak arrakastaz txertatzea. – Erosketan eta kontratazioan ikuspegi berritzaileak praktikoki aplikatzea (erosketa zirkularra, berritzailea, bizi-zikloaren kostuak aplikatzea...). – Truke-taldeetan edo 2. Programako jardueren baitan identifikatzen diren beste jardunbide egoki batzuk. 					
Erakunde arduraduna:	Ihobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Atxikitako administrazioak		
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	3.a, 4.a, 6.a, 7.a, 8.a, 10.a, 11.a, 12.a, 15.a, 17.a, 19.a	2020rako IEPren helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 4.5 / 5.2		
Segimendu-adierazlea:	Urtean eta guztira argitaratutako jardunbide egokien kopurua				
Gauzatzea:	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Implementazio-urtea(k):	2016-2020
	Hasi gabe	Abian	Amaituta		

LERRO ESTRATEGIKOA		Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana			
18. jarduera:	Programaren gauzate-mailaren eta helburu instituzionalen lorpen-mailaren urteko emaitzak argitaratzea				
Helburuak:					
<ul style="list-style-type: none"> • Euskal Administrazioak erosketa eta kontratazio publiko berdearekiko duen konpromisoa erakustea. • Asmo handienak dituzten administrazioen eredugarritasuna erakustea. 					
Deskribapena:					
<p>Planak eta programak monitorizatzuz, erakundeek badakite zenbateraino inplementatzen diren plan eta programa horietan aurreikusitako neurriak eta jarduerak. Informazio horrekin, ebalua daiteke zenbat egin den aurrera ezarritako helburuak betetzen, eta identifika daitezke zer esparrutan eman behar den laguntza handiagoa programak eraginkortasun handiagoz hedatzeko.</p> <p>Emaitzak barrutik zein kanpotik zehatz aztertuz, sektore publikoaren gardentasuna handitzen da, eta gizarteko beste sektore batzuetan ekoizpen eta kontsumo jasangarria sustatzea legitimatzen da. Gainera, erakunde bakoitzak bere neurketarekiko erantzukizunari eusten badio, inplementazio handiagoa sustatzen da erakundeetan.</p> <p>Horregatik guztiagatik, Programak urtero argitaratuko ditu emaitza erantsiak, adierazten dutenak zenbateraino bete dituzten administrazio parte-hartzaileek Programaren helburuak. Hala dagokionean, emaitzak administrazio-motaka xehatuta aurkeztuko dira, eta, emaitza kuantitatiboak jasotzeaz gain, administrazio aurreratuenen adibideak eta jardunbide egokiak ere jasoko ditu, gainerakoentzat laguntza eta inspirazio gisa balio dezaten.</p>					
Erakunde arduraduna:	Ihobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Atxikitako administrazioak		
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	Guztiak	2020rako IEPren helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroak: 4.5 / 5.1 / 5.2		
Segimendu-adierazlea:	Argitaratutako emaitza-txostenen kopurua				
Gauzatea:	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Inplementazio-urtea(k):	2016-2020
	Hasi gabe	Abian	Amaituta		

LERRO ESTRATEGIKOA		Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana			
19. jarduera:	Europako eta/edo nazioarteko sareetan, lantaldeetan eta proiektuetan aktiboki parte hartzea				
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erosketa eta kontratazio publiko berdea sustatzeko Europan eta nazioartean egiten diren ekimenetan laguntzea, estrategiekin bat egiteko eta emaitzak eskala handian optimizatzeko. • Nazioarteko aliantzak egitea arlo honetan erreferentzia diren beste administrazio batzuekin. • Euskadi erosketa eta kontratazio publiko berdearen erreferentzia gisa kokatzea Europa hegoaldean, eta, aldi berean, erosketa berdea egin dezaketen euskal enpresak kanpoan ezagutzera ematea. <p>Deskribapena:</p> <p>Programa honen helburuetako bat da Euskadi arlo honetako erreferentzia gisa kokatzea Europa hegoaldean. Horretarako, Euskal Administrazioak aktiboki hartu behar du parte gaiari buruzko eztabaidetan, sareetan eta lantaldeetan, Europan nahiz nazioartean; esperientziak trukatu behar ditu beste organismo aitzindari batzuekin; Euskadiko ekimenak ezagutzera eman behar ditu; eta erosketa eta kontratazio publiko berdearen ekimen eta proiektu berritzaileak zehazten lagundu behar du.</p> <p>Hor sartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Erosketa eta kontratazio publiko berdea sustatzeko nazioartean egiten diren ekimenei atxikitzea (hala nola Nazio Batuen Kontratazio Publiko Jasangarriaren Hamar Urterako Programa eta Procura+ kanpaina). – Gaiari buruzko lantaldeetan parte hartzea, Europan nahiz nazioartean, euskal administrazioek arlo honetan izan dituzten emaitza eta esperientzia arrakastatsuen berri emateko. – Euskadiko administrazioek eta enpresek gaiari buruzko Europako proiektuetan, jardunaldietan eta kongresuetan parte har dezaten sustatzea. – Erosketa berdeko baliabide teknikoak ez ezik, ezarritako eskakizunak betetzen dituzten eta, hala, kanpoan kokapen hobea lor dezaketen euskal enpresak ere ezagutzera ematea. 					
Erakunde arduraduna:	Ihobe	Parte hartzen duten beste eragile batzuk:	Atxikitako administrazioak		
Programako beste jarduera batzuekiko erlazioa:	3.a, 12.a, 17.a, 18.a, 19.a	2020rako IEPrek helburuei egindako ekarpena:	Jarduera-lerroa: 6.1		
Segimendu-adierazlea:	Egindako jarduera-kopurua				
Gauzatzea:	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Inplementazio-urte(k):	2016-2020
	Hasi gabe	Abian	Amaituta		

II. eranskina

Implementazio egutegia

	2016	2017	2018	2019	2020
Implementaziorako edukia eta tresnak					
1-Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburua eguneratzea eta osatzea					
2-Programan lehenesten diren produktu/zerbitzuetarako ereduazko pleguen proposamenak egitea					
3-Esparru berritzailetan jarduera pilotuak egitea					
4-Laguntza teknikoa ematea					
5-Garaturako produktu eta zerbitzuetarako irizpideak zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea					
Kontratazio-prozeduretan integratzea					
6-Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea					
7-Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozesuak birdefinitzea					
8-Zentralizatutako Erosketa publiko berdea sustatzea					
Prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa					
9- Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan txertatzea					
10- Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea					
11- Sentsibilizazio-ekintzak egitea					
Merkatuarekin koordinatzea					
12- Fabrikatzaileei eta hornitzaileei irizpide teknikoak egiteko prozesuan parte arraraztea					
13- Hornitzaileen eta erosleen artean topaketak antolatzea					
14- Berrikuntzaren erosketaren prozesuetan parte hartzea erraztea					
15- Hornitzaileentzako trebakuntza-ikastaroak egitea					
Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana					
16- Hedapen-ekintzak maiz egitea					
17- Jardunbide egokien berri ematea					
18- Programaren gauzatze-mailaren eta helburu instituzionalen lorpen-mailaren urteko emaitzak argitaratzea					
19- Europako eta/edo nazioarteko sareetan, lantaldeetan eta proiektuetan aktiboki parte hartzea					

III. eranskina

Atxikipen-dokumentua

EAEko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa 2020

Aurkezpena

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programak ezarritako jarduera-esparruak aukera ematen du euskal administrazioek ingurumen-irizpideak beren erosketetan eta kontratazioetan txertatzeko eta bere gain hartzeko.

Programa honek...

... **3 helmuga** nagusi ditu:

- Eraginkorragoa den eta baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzen dituen administrazio bat lortzen laguntzea, kontratazio-prozesuak hobetuz eta haietan ingurumen-irizpideak sistematikoki txertatuz.
- Merkatuarekiko koordinazioa optimizatzea, erosketa publiko berdeak ekoberrikuntza zentzu zabalean txerta dezan bermatzeko eta euskal enpresek kokapen hobea izateko, bai Euskadin, bai kanpoan.
- EAEko Administrazioaren maila guztietan konpromiso eraginkorra lortzea.

... 2016-2020 aldian lortu beharreko **helburu zehatzak** planteatzen ditu:

- Administrazio parte-hartzaileetan erosketa publiko berdea instituzionalizatzerantz aurrera egitea.
- 2020rako kontratazio publikoaren % 50ean ingurumen-irizpideak txertatzea.

... **5 lerro estrategikoko** egitura du, eta aukera ematen du haiek hedatzeko:

- Inplementaziorako edukia eta tresnak.
- Kontratazio-prozeduretan integratzea.
- Prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa.
- Merkatuarekin koordinatzea.
- Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana.



... Lehentasunezko produktu eta zerbitzu hauek eta haien helburuak ezartzen ditu:

	2016	2018	2020
PROZESU HELBURUA	Ingurumenaren aldetik arduratsua den erosketa hobeto eta errazago integratzeko kontratazio-prozesuen berrikusketa eta neurrien plangintza		Erosketa eta kontratazio publiko berde instituzionalizatua
EMAITZA HELBURUAK	Euskadiko administren ohiko kontratazio-tresnetan ingurumenaren irizpidea txertatzea	10 produktu- eta zerbitzu-multzoren lizitazioen % 50ean ingurumen-irizpideak kontuan hartzea: - papera - ordenagailuak - imprimaketa - ekipamentuak - eraikinetako garbiketa-lanak - ibilgailuak - argitalpenak - elikadura - lorezaintza - bide garbiketa - obra zibilak eta azpiegiturak	20 produktu- eta zerbitzu-multzoren lizitazioen % 50ean ingurumen-irizpideak kontuan hartzea: - aurreko 10ak - eraikuntza - urbanizazioa - hondakinen bilketa - elektrizitate hornidura - garraio publikoa - mezularitza - bulegoko altzariak - ehunak - bidaiak - ekitaldiak

Programara atxikitzea: baldintzak eta konpromisoak

Programa irekia da parte hartzeko, eta erosketa eta kontratazio publiko berdearekin konprometitu nahi duten euskal administrazio publiko guztiak beren borondatez atxikitzea sustatzen du:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Sailak eta atxikitako erakundeak)
- Foru Aldundiak (Sailak eta foru-sektore publikoko atxikitako erakundeak)
- Tokiko erakundeak (Udalak, Mankomunitateak...)
- Beste erakunde publiko batzuk

Konpromiso honek ingurumen-onurak eta onura ekonomiko eta sozialak dakartza, bai administrazioarentzat, bai sektore pribatuarentzat eta gizartearentzat.

Kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak aplikatzeak inguruan inpaktu txikiagoa izaten laguntzen du; baliabide publikoen kudeaketako gardentasuna eta eraginkortasuna handitzen ditu; modu eredugarrian jardutea dakar, ingurumena gehiago errespetatzen duten produktu eta zerbitzu lehiakorragoen merkatua berritzea bultzatuz; eta, azken batean, herritarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.

1. Programari atxikitzeko baldintzak:

Programari atxikitzeko eta han parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- EAEko sektore publikoko erakunde bat izatea.
- Erakundeak sinatzea atxikitze-hitzarmena.
- Arduradun bat izendatzea erakundearen erosketa eta kontratazio publiko berdea gidatzeko eta koordinatzeko.

2. Atxikitako erakundearen konpromisoak:

Programa honi atxikitzeko, konpromiso hauek hartu behar dituzte euskal administrazioek:

- Urteko lan-egitasmo bat ezartzea programan lehentasuna eman zaien arloetan eta erakundearentzat bereziki interesgarriak diren arloetako batean gutxienez.
- Kontratazio publiko berdeari buruzko azterketa egitea eta administrazioeko prozeduretan eta tresnetan txertatzea.
- Erakundearen erosketan eta kontratazioan jarduten duten langileak trebatzea eta gaitzea.
- Lehentasuneko produktu- eta zerbitzu-multzoen erosketetan eta kontratazioetan ingurumen-alderdiak sartzea pixkanaka, 2018rako eta 2020rako programetan zehaztutako helburuak —gutxienez— bete arte.
- Urteko jarraipena egitea eta egindako lanaren emaitzak Idazkaritza Teknikoari helaraztea³.
- Jardunbide egokiak eta esperientziak EAEko beste administrazio batzuekin partekatzea.

3. Idazkaritza Teknikoaren konpromisoak:

Bestalde, Ihobe SA - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, EAEko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren (2020) Idazkaritza Teknikoa den aldetik, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Parte hartzen duten administrazioek hartutako konpromisoak betetzeko eman beharreko laguntza teknikoa eta baliabide teknikoak eskaintzea.
- Euskal administrazioaren erosketan eta kontratazioan jarduten duten langileak trebatzea eta gaitzea.
- Lantaldeak antolatzea esperientziak, ikasitakoa, lorpenak eta erronkak trukatzeko eta, hartara, ezarritako konpromisoak eta helburuak betetzeko bidean aurrera egiteko erakundeek.
- Euskal administrazioaren erosketa eta kontratazio publiko berdean izandako jardunbide onak, esperientziak eta emaitzak hedatzea, bai EAEn, bai kanpoan.
- 2. Programaren garapenaren eta emaitzen jarraipena egitea eta haien berri ematea, parte hartzen duten erakunde atxikiek emandako datuak abiapuntu izanik.

³ Programari atxikitzen zaionetik atxikita egoteari utzi arte erabili ahal izango ditu Idazkaritza Teknikoak datuak, eta, datuak banaka erabiltzeko, baimena eskatu beharko dio espresuki dagokion erakundeari.

Atxikipen-formularioa

jaunak/andreak,
 NAN-zk. duenak, erakundeko (kargua)
 gisa (Erakundearen helbidea:
 . Telefonoa: .
 Helbide elektronikoa:)

HAU ADIERAZTEN DU:

1. 2020rako EAEko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programari atxikitzen zaio.
2. Badakizki eta onartzen eta betetzen ditu Programari atxikitzeko baldintzak (dokumentu honetan zehaztuak).
3. Hartzen ditu atxikipen dokumentuan jasotako konpromisoak.
4. izendatzen du (Kargua:
 . Helbide elektronikoa:) Programa erakunde honetan aplikatzeari lotutako guztian erosketa eta kontratazio publiko berdea gidatzeko eta koordinatzeko arduradun gisa.

Horretarako baimena ematen dio (e)ko aren (e)ko Aginduak

Sinadura

Atxikipen-formularioa betetakoan, hona bidali behar da:

IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

EAEko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programaren (2020) Idazkaritza Teknikoa.

Helbide elektronikoa: compra.verde@ihobe.eus

Faxa: 94 423 59 00

Helbidea: Urkixo zumarkalea 36 - 6. solairua, 48011 BILBO

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Idazkaritza Teknikoa: Ihobe SA

tel.: 94 423 07 43

Helbide elektronikoa: compra.verde@ihobe.eus

Webgunea: www.ihobe.eus

IV. eranskina

EKPB Programak egiten duen
ekarpena Ingurumen Esparru
Programa (2020)



EAE-KO INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA (2020) betetzeari egiten dion ekarpena

EAEko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa (2020)		1. LE: Implementaziorako edukia eta tresnak	2. LE: Kontratazio- prozeduretan integratzea	3. LE: Prestakuntza, trebakuntza eta sentsibilizazioa	4. LE: Merkatuarekin koordinatzea	5. LE: Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana
1. HE: Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratztea, ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak gertatzeko	1.1- Ingurune naturalaren kontserbazioa politika sektorialetan eragin korotasunez txertatzea 1.3- Lurzoruaren okupazioari galga jartzea, erabilera nahasketa eta espazio degradatuen eraberritzea eta berrerabipena erraztuz 1.5- Lurraldean jarduten duten eragileak ekosistemaren zerbitzuen garrantziaz konprometitzea eta sentsibilizatzea	1- Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburua eguneratzea eta osatzea 2- Programan lehenesten diren produktu/zerbitzuetarako ereduak pleguen proposamenak egitea 3- Esparru berritzaileetan ekintza pilotuak egitea 4- Laguntza tekniko pertsonalizatua ematea 5- Garatutako produktu eta zerbitzuetarako irizpideak ikuspegi pribatura edo zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea	6- Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea 7- Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozesuak birdefinitzea 8- Zentralizatutako Erosketa publiko berdea sustatzea 9- Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan txertatzea	10- Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea 11- Sentsibilizazio-ekintzak egitea 12- Fabrikatzaileei eta hornitzaileei irizpide teknikoak egiteko prozesuan parte harraraztea 13- Hornitzaileen eta erosleen artean topaketak antolatzea 14- Berrikuntzaren erosketaren prozesuetan parte hartzea erraztea 15- Hornitzaileentzako trebakuntza-ikastaroak egitea	16- Hedapen-ekintzak maiz egitea 17- Jardunbide egokien berri ematea 18- Programaren gauzatze-mailaren eta helburu instituzionalen lorpen-mailaren urteko emaitzak argitaratzea 19- Europako eta/edo nazioarteko sareetan, lantaldeetan eta proiektuetan aktiboki parte hartzea	
2. HE: Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta ballabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurrera egitea	2.1- Karbono isurketa txikiko ekonomia lehiakorra bultzatzea 2.3- Ekonomia zirkular bat bultzatzea, non ez den ezer alferrik galzen 2.4- Ekintzailetza eta enplegu berdea indartzea					
4. HE: Lurraldearen jasangarritasuna handitzea	4.1- Pertsonen kontsumo arduratsua bultzatzea 4.4- Energiaren, uraren, hondakinen eta lurzoruen erabilpen arduratsua potentziatzea lurraldean 4.5- Herritarren sentsibilizazioa eta parte-hartzea bultzatzea lurraldean					
5. HE: Politiken koherentzia bermatzea, ingurumen-integrazioa areagotuz	5.1- Politika publikoetan ingurumenaren-integrazioa sustatzea 5.2- Ingurumen arloan erudugarria den herri-administrazio baten konfigurazioan aurrera egitea 5.3- Gizarte zibilaren parte-hartze eta elkarrizketa espazioak eta erantzukidetasun publiko-pribatua sustatzea 5.4- Jasangarritasunerako hezkuntza eta kontzientziazioa indartzea euskal gizarte osoan					
6. HE: Euskadiren nazioarteko proiektzioa eta erantzukizuna sustatzea	6.1- Ingurumenetik Euskadi nazioartekotzeko-estrategiari laguntzea					